



IKUSBERA
aldizkari berezia
Goiena Klubeko bazkideendako.



Goiena Komunikazio Taldeko kideak, Andoaingo Bastero Kulturgunean egindako sari banaketa ekitaldiaren ostean: langileak, sortzaileak eta udaletako eta euskara elkarrekin ordezkariek.

EUSKARAZKO KAZETARITZAREN MUGARRIETAKO BAT DA GOIENA

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak hamar egitasmo nabarmendu ditu / 4

IMANOL SORIANO

SINADURAK

	ANDONI ELEJALDE / 19
	VALEN MOÑUX / 14
	MIEL GURIDI / 28
	GAIZKA ERAÑA / 17
	AINZANE OIARBIDE / 40

puntua

Oraingo astean ez da Puntua aldizkaria argitaratu. Hurrengo azaroaren 9an irtengo da.

LANA-FISKALITATEA-KONTABILITATEA-ABOKATUAK-GESTORIA

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

Fiskal, kontabilitate, lan, gestoria eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Enpresa, autonomo eta partikularrei zerbitzua emateko gaude

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus



Bi emakume, Oñatiko hilerrian, loreak jartzen. E.A.

Hildakoei bisita egiteko eguna

Tradizio luzeko ohitura da Domu Santu egunez kanposantuak bisitatzea, baina azken urteetan geroz eta jende gutxiago joaten da, batik bat, lurperatze kopurua ez delako garai batekoa; Oñatin, hala ere, hildako gehienak lurperatzen dituzte egun, %97,9

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Bihar, eguna, azaroaren 1a da, Santu Guztien Eguna. Hildakoez oroitzeko eta haiei omenaldia egiteko eguna izan ohi da eta urte askoko tradizioa da kanposantuetan dauden familiako edo gertuko hildakoak bisitatzea.

Hala ere, joera hori beherantz doa urtetik urtera, eta arrazoi nagusietako bat da geroz eta hildako gutxiago lurperatzen dituztela. Beste bide batzuk harztearen aldeko apustua egiten dute familiek.

Debagoieneko herrietako herriz herriko azterketa eginez, Antzuolan 2016an %25,9 lurperatu zituzten eta 2018ko orain arteko datuek diote hildakoen %23,5 hilobiratu dituztela.

Aramaiori dagokionez, 2016an hildakoen %63,6 izan ziren lurperatutakoak eta 2018an %60 dira orain arte.

Aretxabaletan, adibidez, gora egin du datuak. 2016an %25,9 hilobiratu zituzten eta 2018an, gaur arte, %35,5 dira.

Arrasaten ez dute 2018ko datu eguneraturik. Hala ere, 2014an, hildakoen %23 lurperatu zituzten eta 2017an, %25. Beraz, apur bat gora egin du datuak.

Bergaran beherakada nahiko nabarmena da. Izan ere, 2016an hildakoen %43,8 izan ziren hilobiratuak eta 2018an, gaur-gaurkoz, %30 dira.

Elgetari dagokionez, herri txikia izanik, ez da askorik aldatzen datua urtetik urtera, baina gutxi

LURPERATUTAKOEN KOPURUAK GORA EGIN DU ARETXABALETAN ETA ARRASATEN AZKEN URTEETAN

gorabehera %25ean mantentzen da lurperatu kopurua.

Eskoriatzari erreparatuta, hildakoen erdiak inguru dira hilobiratzen dituztenak. 2017an %51,4 izan ziren eta 2018an %54 izaten ari dira.

Leintz Gatzagan, populazioa baxua izanik, hildakoak ere gutxi dira. 2015eko urtarriletik gaur egunera arte bost hildako bakarrik izan dira, eta horietatik hiru lurperatu dituzte, %60.

Oñatin, azkenik, hildakoen gehienak lurperatzen dituzte oraindik, eta datua oso handia da gainontzeko herriein alde hartuta; azken hiru urteak kontuan hartuta, hildakoen %97,9 hilobiratu dituzte.

Hileta zibilak

Ohiko hiletez gain, hileta edo omenaldi zibilak ere indarra hartzen ari dira, baina oso gu-

Gaba Baltza eta Arimen Gaua

Urriaren 31 gauean, Santu Guztien Egunaren bezperan, mundu mailan oso errotuta dagoen festa da Halloween. Hala ere, badira urte batzuk Debagoieneko zenbait herritan hemengo festa propioak sustatzen dituztela, festa hari aurre egiteko helburuarekin.

Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Elgetan, adibidez, Gaba Baltza izeneko egiten dute. Lehenengoaren kasuan, Loramendi euskara elkarte eta ludoteka hasi ziren antolatzen, elkarlanean, eta aurten, dagoeneko, batzorde bat osatu dute. Arrasaten, bestalde, Ttak gazte taldeak, Ekin Emakumeak eta Txatxilipurdi elkarteek eta udal ludotekak antolatzen dute. Bergaran, berriz, gaztetxea ari da horretan, eta Elgetan, azkenik, gurasoen elkarte.

Eskoriatzan eta Oñatin, Arimen Gaua izeneko festa egingo dute. Eskoriatzan, Udala, gaztelekua, Tortolis ludoteka eta zenbait herritar izan dira antolatzaileak. Oñatin, gaztelekua ibili da antolakuntza lanetan. Azken horretan, gaztelekuan bertan elkartuko dira gaur, 17:00etan, eta, talde txikietan banatuta, Sorkunde gaztelekutik botatzen saiatuko dira.

Gainontzeko herrietan ere egitarau zabala antolatu dute, eta, hain zuzen ere, herri bakoitzeko orrietan daude ikusgai egingo dituzten ekintzak.

txika. Horretarako, ordenantzak dituzte zenbait udalek; beste batzuek, ordea, ez dute gaiaren inguruko ordenantzarik.

Antzuolan, adibidez, 2010ean onartu zuten ordenantza eta eskolako patioan egin izan dituzte orain arteko hileta zibilak.

Aramaion, bestalde, ez dute ordenantzarik eta leku egokiturik hileta zibilak egiteko.

Aretxabaletan, 2010ean onartu zuten ordenantza, eta komentua da horretarako lekua. Udaletxetik helarazitako informazioaren arabera, agintaldi honetan bi egin dira, zinegotzi batena eta auzo-alkate batena.

Arrasaten ere 2010ean onartu zuten ordenantza eta Aldaiko parkea eta San Kristobalgo hilerria dira omenaldi edo hileta horiek egiteko leku egokituak. Horren harira, 2017ko urrian, hileta zibilak egiteko leku estali baten beharra kuantifikatzeko ekimena jarri zuen martxan EH Bilduk, eta sinadura bilketa ere egin zuen.

Bergarari erreparatuz, 2010ean onartu zuten ordenantza, Kaitabiako plaza egokitu zuten hileta zibiletarako. Horrez gain, ordenantza jasota dagoenez, Angiozarren, Osintxun, Elosuan,

ARAMAIO DA HILETA ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZARIK EZ DUEN UDALERRI BAKARRA

Elorregin, Basalgon edo Uberan erroldatua bada hil dena, auzo horretako pilotalekuan hileta ospakizun edo omenaldi zibila egiteko baimena eskatu ahal izango da. Dena den, Udaleko idazkaritzatik jasotako informazioaren arabera, oso eskaera gutxi jaso ditu Udalak eta oraindik ez dago hedatuta herrian.

Elgetan 2017ko maiatzean onartu zuten gai horren gaineko ordenantza, eta, horren arabera, hainbat espazio daude hileta zibilak egiteko herrian. Horiek dira Udal Pilotalekua, Mendizaleen plaza, Domingo Iturbe plaza, frontoi zaharra, San Roke osteko plaza, udaltxeko areto nagusia eta San Roke ermita –azken hau geroago onartu zuten, 2017ko iraileko osoko bilkuran–.

Eskoriatzan 2009an onartu zuten. Tokiei dagokionez, herrigunean, Ibarraundi museoa, Udal Pilotalekuan eta Santa Marinaran eta Eduardo Gorosarri plazan egingo dira. Landaguneetan, berriz, auzo-alkateek izango dute lekuak izendatzeko ardura, betiere, alkatearen oniritziarekin.

Leintz Gatzagan kultura etxea da hileta zibilak egiteko lekua, baina oraindik ez dute bat bera ere egin.

Oñatin, azkenik, 2012an onartu zuten. Santa Ana aretoa eta honen sarrerako kristalezko gune itxia edota Santa Anako lorategia eta hilerriaren aurrealdeko parke irekia dira lekuak.

EUSKARALDIA, GERTU!

26
EGUN FALTA
DIRA

Taldea batuta, hainbat gairen gainean hausnartu dute. E.A.

Belarriak prest izango dituztenak protagonista

'Nik ulertzen dut, niri egin euskaraz, Euskaraldiaz mintzodromoa' egin dute Irizar jauregian, 'belarriprest'-en "kezka" eta "beldurra" argitzen saiatzeko helburuarekin, hain zuzen. "Oso pozik" azaldu dira Bergarako Euskaraldiko kideak

Eneko Azurmendi BERGARA

Euskaraldian *belarriprest* rola hartuko dutenei zuzendutako *mintzodromoa* egin dute Bergaran, hauei "entzuteko" helburuarekin. "Zein behar dituzten, zein beldur daukaten, izena ematera animatuko diren edo ez, eta abar, jakin gura izan dugu, bide horretan laguntzeko", adierazi du Maitane Arizabaleak, Jarduneko langileak.

Arizabalearen esanetan, gaitasunaren arabera dira dituzten kezka eta beldur horiek. "Badago profil bat guztia ulertzen duena, baina euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duena. Eta badago beste profil bat euskara ez duena ondo ulertzen, eta hauek beldur dira ea gai izango ote diren guztia ulertzeko. Guk nahi izan duguna da sinestarazi posible dela, eta, momenturen batean ezin bada, ez dela ezer gertatzen", azaldu du.

Euskaraldiaren gaineko informazioa eta xehetasunak azaldu dizkiete gerturatutakoei, eta

ondoren, taldeetan banatuta, hiru galdera multzoren gaineko hausnarketa egin dute: *Behin batean euskaldun izatea erabaki nuen. Zer esan nahi du Karmelo Ayestak esaldi horrekin? Ze iritzi duzu horren inguruan? Identifikatzen zara esaldi horrekin?; Izango zara belarriprest? edo ahobizi? Oztoporik ikusten duzu? Nola animatu zara izena ematera?; Nola lagundu dezakegu ohiturak aldatzen? Zer eskatzen diozu euskaraz egiten duenari?*

Euskaltegiko ikasleak

Saiora hurbildu diren hainbat *belarriprest* euskaltegiko ikasleak dira. "Guk Euskaraldia guztiei azaldu diegu, baina *belarriprest*

EUSKARAREKIN ETA EUSKARALDIAREKIN LOTUTAKO GAI BATZUEN GAINEAN HAUSNARTU DUTE

izateak gutxieneko gaitasun bat eskatzen du, eta batzuk kanpoan gelditzen zaizkigu; hala ere, A2 mailatik gorakoek parte hartuko dute", azaldu du Alex Labaienek, euskaltegiko irakasleak.

Euskaltegitik kanpo ikasteko beste modu bat izango da Euskaraldia ikasleentzat. "Zabaltzen den ideietako bat da herria euskaltegi bihurtzearena. Oztopo batzuk apurtuko dituzte, eta interesgarria izango da. Gogoia eta ilusioa nabaritzen dut ikasleengan", dio Labaienek.

'Belarriprest' baten esperientzia

Oscar Ortiz bergararra da *belarriprest* rola hartuko duenetako bat. "Gurasoak kanpotarrak ditut eta etxean ez dut euskara jaso. Txikitatik egin dut gaztelaniaz, eta nire ingurua beti erdalduna izan da. Euskara ikasteko beharra sentitzen nuen, eta lau urte daramatzat. Euskaraldia ekimen polita da, lagunduko dit. Neskalagunarekin ere beti saiatzen naiz euskaraz egiten", dio.

Martxan dago gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Osakidetza adierazi du txertoa dela prebentzio-neurri nagusia, "segurua eta eraginkorra" dela iritzita

E.A. DEBAGOIENA

Urriaren 24az geroztik, martxan da 2018ko gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Osakidetza adierazi duenez, gripea "gaixotasun infektiboa da, oso kutsakorra, eta edonor erasan dezake". Gehienetan onbera izan arren, "arazo larriak" sortu diezaike gaixotasun kronikoak dituztenei. Horregatik, ohartarazi du txertoa dela prebentzio-neurri nagusia, "segurua eta eraginkorra" dela iritzita.

Kanpaina honako hauei zuzenduta dago, nagusiki, "arriku-taldeak" direlako: 65 urte baino gehiago dituztenak; gaixotasun kronikoak dituztenak: diabetesa, BGBK, kardiopatiak...; haurdun dauden emakumeak eta profesional sanitarioak.

Horrez gain, prebentzio neurri modura, ohar batzuk helarazi nahi izan ditu Osakidetza, hala

nola erabiltzeko eta botatzeko paperezko zapiak erabiltzea; eztula edo doministiku egitean ahoa edo sudurra besoarekin estaltzea eta eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzea sarri.

Zer egin txertoa hartzeko?

Txertoa hartu ahal izateko, 65 urteko edo gehiagoko pertsonak, gaixotasun kronikoa dutenak eta haurdun dauden emakumeek ohiko osasun-zentrorra osasuntxartelarekin joan besterik ez dute. Hala ere, Osakidetza ohartarazi du aurretik telefonoz deitzea komeni dela, txertaketa-ordutegien berri izateko, eta malguak eta kanpainara egokituak izango diren jakiteko.

Bailarako anbulatorio guztietan dago aukera txertoa hartzeko; beraz, nork bere anbulatorioa deitu beharko du aipatutako informazioa jasotzeko.

ULMA

Packaging, S. Coop.

Oñati

EZOHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2018ko azaroaren 7a

Ordua: 14:30ean lehenengo deialdia eta 15:00etan bigarrena

Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. 2.511 ZENBAKIDUN BAZKIDEAK AURKEZTUTAKO ERREKURTZOAREN EBAZPENA. ERREKURTSOA KONTSEILU ERREKTOREAK 2018KO UZTAILAREN 23AN BAZKIDEA KOOPERATIBATIK KANPORATZEKO HARTU ZUEN ERABAKIAREN AURKAKOA IZAN ZEN.
2. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO.
3. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA.
4. AHALMENAK ESKUORDETZEA.
5. GALDE-ESKEAK.

OHARRAK: Bazkide guztiei jakinarazten zaie eslebidetako datela ULMA Packaging, S. Coop.eko helbide sozialean, gai zerrendako 1. puntuan aipatzen den zehazpen-errekurtsoari buruzko dokumentazioa arretzeko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

Oñati, 2018ko urriaren 15a

Goiena Taldea, 10 mugarrietako bat

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak bereziak izan dira aurten; izan ere, euskarazko kazetaritzan azken 50 urteetan izan diren hamar mugarri aukeratu dituzte, eta horien artean dago Goiena, "tokiko kazetaritzan eta komunikazioan aitzindari"

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak 30 urte bete dituzte aurten, eta, hori dela eta, sariketa berezia izan zen urriaren 26an Andoainen ospatutakoa. Euskarazko kazetaritzan azkeneko 50 urteetan mugarri izan diren hamar eragile aukeratu ditu epaimahaiak, eta hedabide horiek aitortza moduan jaso dituzte sariak.

Andoingo Bastero Kulturgunea lepo bete zen pasa den egubakoitzean ekitaldia jarraitzeko; izan ere, hedabide askotako kazetari eta kide ugari batu ziren. *30 urte, 10 mugarri* lelopean, euskal kazetaritzan "garrantzi nabarmena" izan duten hamar hedabideak. Ilaski Serrano eta Dani Alvarez kazetariak aurkeztu zuten gala, eta, ordu eta erdian, saria jaso zuten hamar eragileetako ordezkariak igotzen joan ziren. Hauek izan ziren: *Anaitasuna*, *Zeruko Argiatik Argiara*, *Ttipi-Ttapa*, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, EITB, *Elhuyar*, *Euskaldunon Egunkaria*, Euskal Irratiak, *Eibar.org* eta Goiena Komunikazio Taldea.

Goiena, saritua

Horrela, Bastero Kulturguneko agertokira Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia igo zen saria jasotzera, Elixabete Garmendia kazetariaren eskutik.

Arantzabalek, eskerrak eman ondoren, Goienako bezeroei eskaini zien saria: "Ohorea da EITBren, *Egunkaria*-ren, *Elhuyar* zientzia aldizkariaren eta saritutako beste guztien ondoan egotea. Gure enpresa txiki-txikia da eta, guretako, hemen egotea handi-handia da. Goienaren gaioetako bat gertutasuna dela uste dut, eta gertutasuna gure bezeroek ematen digute. Bezero komertzial, bezero irakurle eta bezero ikus-entzuleek. Eta baita ere gu ematen saiatzen garen gertutasuna. Norbere herriko, norbere udaleko eta, batzuetan,

GOIENAK BESTE BEDERATZI ERAGILEREKIN BATERA JASO ZUEN AITORTZA

norbere kaleko gauzak ere kontatzen ditugulako".

Goienako kameraren aurrean, berriro, eskerrak eman nahi izan zituen Iban Arantzabalek: "Goiena zerbait bada modu, ideologia, janzkera eta entitate ezberdinetako jendea da. Berezi, saria gure komunitatearentako da, gurekin lan egiten duelako. Gure bezeroendako, gurekin batera jarraitzen dutelako. Guretzako, lankideendako, egunero egoten direlako, izerditan batzuetan, eta horrek badu indarra. Eta bestetik, erakunde publikoendako ere bai. Urtez urte laguntzen dute, eta jarraituko dutela espero dugulako; gainera, orain baino sendoago".

Tokikomi aipamena

Tokikom eta beste tokiko hedabideak ere kontuan izan zituen Goienako zuzendari nagusiak: "Uste dut aitortza hau ez dela Goienarendako bakarrik. Tokiko hedabideetan borrokan gabiltzan guztiendako da. Hemendik zatitxo bana bidaliko nioke horietako bakoitzari, berezi Tokikomeko bazkideei, gure lankideei, lan handia egiten ari



Aitortza jaso zuten hamar eragileetako ordezkariak. IMANOL SORIANO

garelako elkarrekin eta elkarrekin, gainera, askoz ere bizkorrago ari garelako lanean".

Kudeaketa eta komunitatea

Aitortza jaso izanaren arrazoiak aipatzean, Goiena Komunikazio Taldeak duen kudeaketa eredua

GOIENAKO KOMUNITATEARI ESKAINI ZION SARIA IBAN ARANTZABALEK, ZUZENDARI NAGUSIAK

nabarmendu zuen Arantzabalek sari-banaketan: "Kokudeaketa deitzen dioguna. Gure enpresa irabazi asmorik gabeko kooperatiba da, eta aginte organoetan udalak -publikoa- jabeak ere diren langileak eta jabetza nagusia duten euskara elkarteak daude. Horiek denak etorri dira autobus batean, hemen daude, eta txaloak horiendako dira. Gaurko alkate, lehengo alkate, kide, zuzendaritzako kide, kolaboratzaile...".

Horrez gain, Goiena Komunikazio Taldearen "erdigunean,



Dani Alvarez eta Ilaski Serrano aurkezleak. I.S.



Elixabete Garmendiak eman zion saria Iban Arantzabali. I.S.



Iban Arantzabal, Goienako zuzendari nagusia. I.S.



nukleoan, dagoen hizkuntza komunitatea" ere aipatu zuen zuzendari nagusiak. "Gure agintea hor dago, eta zerbitzua emateko lekua ere bai. Ez gaude alderdi politiko baten menpe edo ez gaitu patrozinatzen edozein indar ekonomikok. Horrek mantentzen du gure independentzia. Hizkuntza komunitate baterako lan egiteak eta hizkuntza komunitatearekin lan egiteak, hain zuzen. Horrela bakarrik da posible komunikazio plurala egitea. Batzuetan, eroso samarra; eta beste batzuetan, azkura sortzen duena ere bai. Baina dezentzako azkura sortzen duena", adierazi zuen Iban Arantxabalek.

Epaimahaiaren arrazoiak

"Lorpenaren eta arrakastaren eredu garbia dugu Goiena, tokiko kazetaritzan eta komunikazioan aitzindari aparta". Hitz

GOIENA "TOKIKO KOMUNIKAZIOAN AITZINDARI" IZAN DELA AZPIMARRATU ZUEN EPAIMAHAIK

horiek eskaini zizkion Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako epaimahaiak Goienari. Aurten, epaimahai osatu dute Miren Azkaratek, Jose Inazio Basterretxeak, Allande Boutinek, Aingeru Epaltzak, Elixabete Larrinagak, Jon Unanuek, Arantxa Urretabizkaiek eta Aitor Zuberogoiak; eta mahai-burua, berriz, Ainara Rodriguez Zalakain izan da.

Epaimahaiak nabarmendu zuen komunikazio taldeak lortutakoa bilketa eta batura hutsetik harago doala: "Emaizta kalitate, irismen eta ikusgarritasun handiko multimedia egitura izan da, paperezko euskarri klasikoetan –GOIENA eta *Puntua* astekariak–, Goiena telebistan, Arrasate Irratian edo *Goiena* argitalpen eta zerbitzu digitaletan berealdiko oihartzun eta eragina sortu duena eskualdean eta baita eskualdetik kanpo. Goienaren argitalpen eta ekoizkinak, tokian tokikoak izateaz gain, asko eta asko kalitate eta ontasunez eskualdeaz gaindi noranahiko eredu dira ere gaur egun".



Haziko al da euskarazko ekoizpena?

Euskarazko ikus-entzunezko edukien etorkizuna **guztion ardura da**. Eraiki dezagun gure etorkizuna denon artean, Gipuzkoa izan dadin European desberdintasun gutxien duen lurraldeetako bat.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz



Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien 30. edizioko 10 mugarr sarituetako ordezkariak –horien artean, Iban Arantzabal Goienako zuzendari nagusia– eta sarien banatzaileak, ekitaldi osteko familia-argazkian. IMANOL SORIANO

"Mehatz-urrea" zainduz lanean

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien banatze ekitaldiak urtero batzen ditu euskarazko kazetariak. Aurten, 30. urteurrena izanda, euskarazko hedabideen inoizko ordezkariak zabal eta esanguratsuena batu da Andoainen

Eneko Azkarate ANDOAIN

Komunitateari erreferentzia egin zion Iban Arantzabal Goienako zuzendari nagusiak, joan zen egubakoitzean, Andoaingo Bastero Kulturguneko areto nagusian egindako ekitaldian. Goienaren komunitatea osatzen duten herritar, elkarte eta erakundeei; irakurle, ikus-entzule zein erabiltzaileei; Goienaren hedabideetan modu batera edo bestera kolaboratzen duten 250 lagunei; proiektua aurrera ateratzeko publizitatea jartzen duten komertzio, taberna, jatetxe, eta abarri; bezeroei... Eta harro

agertu zen –"ohore handia" zela esan zuen– saria EITB, *Berria*, *Argia*, *Elhuyar*, *Eibar.org* eta bestelakoekin batera partekatzeagatik eta tokiko hedabideen –"bereziki Tokikom elkartearen batzen" diren– ekosistemako lagunkide izatearren.

Izan ere, aipatutako guztietako ordezkariak izan ziren joan zen egubakoitzean Andoaingo ekitaldian eta ekitaldi osteko luntxean. Horietako asko, Debagoienetik joandakoak. Esaterako, Goienaren sorreran, 2000. urtean, Arrasateko alkate zen Xabier Zubizarreta eta gaur

Rikardo Arregi, euskal kazetaritza eta Goiena berbagai



PATXI BAZTARRIKA
RAKS-EN IDAZKARIA

"Euskarak nonbait irabazi badu berarentzako txoko bat, geroago eta gutxiago dena txoko eta gehiago dena zelai, hain zuzen ere, informazio lokalaren edo hurbilekoaren arlo hori da. Debagoienean, Goiena da nagusi, gaztelaniazkoen aurretik eta, hortaz, euskararen komunitatea indartzeko ezinbesteko da".



MIKEL BIAIN
OÑATIKO ALKATEA

"Pozik gaude, sariaren zati bat Debagoieneko udalena ere badelako. Ekitaldira pozik joan gara, egunerokoan euskara etxeetara zabaltzeko euskarazko hedabideek, eta gurean, Goienak, egiten duen lana estimatzeko delako eta Goienak badaukalako egiteko inportante bat, gure partetik eskertzen duguna".



BINGEN ZUPIRIA
KULTURA SAILBURUA

"Hedabideetan lanean diharduzuenok, esate baterako, GOIENAN zabilzatenok, baina denek, behin eta berriro galdetu behar diozue zeuon buruari zenbateraino egiten dituzuen erakargarri hedabideak, jendeak kontsumitu ditzan. Gogoeta hori egin behar dugu denon artean, etorkizunari begira".



NEKANE BALLUERCA
EHU-KO ERREKTOREA

"EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak bere ekarpena egin dio gizarte honi, eta, alde horretatik, RAKSen aitortza jasotzea ohorea da. Izan bere, guztira, 11.000 komunikazio profesional pasa dira fakultatek, horietatik 4.000 euskarazkoak, Goienan eta halako hedabideetan ari direnak".



MARTXELO OTAMENDI
'BERRIA'-KO ZUZENDARIA

"Rikardo Arregik ez dakit inoiz amestuko zuen euskarazko kazetaritza heldu den tokira heltzea. Izan ere, munduko edozein bazterretan dago euskal kazetari bat, dago *Berria*, dago EITB, dago Goiena... Munduan ez dago 800.000 laguneko hizkuntza komunitate bat horrelako kazetaritza eskaintzarekin".



Agustin Zelaieta, *Anaitasuna* aldizkarikoa. I.S.



Izagirre eta Plazaola, Goienako bi presidente, erdian, langileekin. I.S.



Goienaren sortzaileak eta ordezkariak. I.S.



Dani Alvarez aurkezlea eta Patxi Baztarrika RAKSetako idazkaria. I.S.

egungo Oñatiko alkate Mikel Biain; Beñardo Kortabarría Antzuolako alkatea, Goienako kide den heinean eta ekitaldian saritutako *Elhuyar* zientzia aldizkariko lankide ohiekin batera. Eskualdeko alkate guztiak zeuden gonbidatuta ekitaldira, baita euskara elkarteetako ordezkariak eta Goienaren sorrerakoak, baina, arrazoi bategatik edo besteagatik, batzuek ez zuten bertan egoterik izan. Goienaren sorreran, Oñatin proiektuaren bultzagile izan zen Lourdes Idoiaga zinegotzi eta alkate ohiak zorion mezuzak bidali zituen, bertan egoterik izan ez zuen arren.

Sektoreko agenteak

Goienaren hasierako eta gaur egungo presidenteak, Estepan Plazaolak eta Aitor Izagirrek, elkarren ondoan jarraitu zuten ekitaldia, Goienaren sorreran, duela 18 urte, herrietako proiektuak kooperatiba bakarrean batzeko lanean jardun zuten Joxemari Muxika, Mikel Irizar eta Mikel Lezamizekin, eta Goienako lantaldearekin –ekitaldiko talderik zaratatsuenarekin– batera. Arantzabalek, agertokian, haiendako txaloak eskatu zituen eta ikus-entzuleriak erantzun egin zion, gogoz.

Komunitateari ez ezik, bezeroei egin zien erreferentzia Goienako zuzendari nagusiak, eta gertutasuna aipatu zuen, Goienarendako benetako "mehatzeko urrea" hor zegoela nabarmenduz. Baina agintea, "nukleoa", hizkuntz komunitatean dagoela azpimarratu zuen.

Martxelo Otamendi, Maite Iturbe... euskarazko hedabideetako ordezkariak esanguratsuenak; Patxi Baztarrika antolatzailea; Ilaski Serrano eta Dani Alvarez –lehen aldiz aurkeztu zuen ekitaldi bat osorik euskara hutsean– aurkezleak... Guztiak, aldarte onean, solasean, ekitaldi ostean.



Iban Arantzabal, Goienako zuzendari nagusia, elkarrizketatzen. I.S.



Elhuyar-koein, Arana (MU) eta Kortabarría Antzuolako alkatea. I.S.



Sarituetako bat izan zen *Eibar.org* elkarte. I.S.



Biain, Oñatiko alkatea, eta Zubizarreta, Arrasateko alkate ohi. I.S.



Maite Iturbe, EITBko zuzendaria, elkarrizketatzen. I.S.



Mikel Irizar eta Mikel Arregi, Rikardo Arregi zenaren anaia. I.S.

BESTE 9 MUGARRIAK

Askotariko erakunde eta hedabideak izendatzea eta saritzea izan da epaimahaiaren erabakia. Euskarazko kazetaritza, norbanakoez egina bai, baina askoren artean eraikitako enpresa kolektiboak saritu nahi izan dituzte aurtengoan



'ANAITASUNA'

ANGEL ZELAIETA
'ANAITASUNA'-REN ZUZENDARI OHIA

"Oso gaitza izaten zen orduko inprentan inprimatzea"

Anaitasuna aldizkaria mugarri bezala aukeratzeko, epaimahaiak bi arrazoi nagusi aipatu zituen. Batetik, *newsmagazine* eredua euskarazko prentsara ekartzeagatik: formatu modernoak, eduki modernoak, kazetaritza moderna. Bestetik, euskara batuari egindako ekarpenagatik. Hiru urratsetan planteatu zuten baturaren aldeko apustu irmoa: bizkaiera batua sortuz eta sustatuz; ereduak euskara batua apurka orrialdeetan sartuz; eta euskara batua erabiltzea oso osoan bere produkzioan.

Iragana gogoan

Jose Antonio Zelaietak jaso zuen saria, aldizkariaren zuzendari ohiak, eta gogora ekarri zuen nola proposatu zioten kargu hura: "Jose Antonio Retolazak, *Kili Kili*-ren sortzaileak, proposatu zidan *Anaitasuna* sortzeko egin behar zen bilerara joateko. Han, Josu Naberanek eta Angel Ugarteburuk esan zidaten ni zuzendari izateko; beraz, eurek ipinitako penitentzia izan zen. Ez dakit ondo osatu nuen, galdetuko diet". Eta hauxe gaineratu zuen: "Orduan, ni Galda-kaoko *Bengoetxe*-n hasi nintzen, eta han inprentatxoak geneukan. Auzoko inprentan inprimatzen genuen, eta han, besteak beste, Ramon Kastaños izeneko bat zebilen lanean. Hark gogorazi zidan zein gaitza izaten zen orduko inprenta hartan inprimatzea, orduko teknikarekin, eta konpondu ezinak egoten ziren maiz. Horrela jarraitu genuen aurrera".



'ZERUKO ARGIA'-TIK 'ARGIA'-RA

ESTITXU EIZAGIRRE
'ARGIA' ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA

"Ez ditugu ahazten gure aurrekoek egindako lanak"

Epaimahaiaren esanetan, Rikardo Arregiren "itzalpean", "iraultza eta modernotasuna" ekarri dutelako, ideia laborategia izan delako eta beste hedabideetarako "harrobi" ere izan delako izendatu zuten mugarri *Zeruko Argia*-tik *Argia*-ra. Laburbilduz, euskal kazetaritzaren ADN-a "ezin hobeto" islatzen duelako. *Argia kazetaritza independentea, txikitik eragiten* horixe da eurek erabiltzen duten leloa. 1980ra arte izan zen *Zeruko Argia*, eta, hain zuzen ere, geroztik da *Argia* aldizkaria.

Hasierako lantaldeari eskainita

Jasotako saria 1980an *Argia*-ri eutsi eta ekin zion lantalde horri eskaini nahi izan zion Estitxu Eizagirre zuzendariak, eta hitz hauek izan zituen: "Duela ia lau hamarkada, gure aurretik, kazetaritza proiektu hau biziarazi zutenek asmatu zutelako gaude gu hemen. Asmatu zutelako esan zutenean euskal prentsak euskaraz izan behar zuela; gure hizkuntza burujabea izango bazen, eta ez besteren etxeko maizter. Asmatu zutelako bere buruaren jabe izango zen hizkuntza horrek behar zuela, gutxienez, hedabide burujabe bat, hedabide bat non langileek izango zuten hitza eta erabakia, eta ez beste edozein interes taldek. Asmatu zutelako berezko oztopoak eta jarritakoak gaindituz, hedabide hori bideragarri egiten, beste hedabide batzuk sortzen, egunkari oso bat martxan jartzearaino (...). Ahazten ez dugulako gaude gu hemen".



'TTIPI-TTAPA'

AITOR AROTZENA
'TTIPI-TTAPA'-REN ZUZENDARIA

"Biderik luzeenak ere lehenengo urratsetik hasi behar du"

Ttipi-Ttapa aldizkaria Beran sortu zen, 1982an, eta, gorabeherak izan dituen arren, gaur egun hamaboskari gisa finkaturik dago. Euskal Herriko txoko guztietan sortu diren beste aldizkari bide erakusle "espanturik gabea" izan da urte hauetan guztietan, epaimahaiaren hitzetan. Laster zabaldu zen Bortzietako gainerako lau herrietara. Handik, hedatu egin zen Nafarroako mendialdeko beste ibarretara: Malerrekara, Bertizaranara, Baztanera, Leitzaldera... baita Lapurdiko Sara eta Senpere herrietaraino.

'Ttipi ttapa', 38 urtez lanean

"Berez biderik ez dagoela, bidea oinez ibiltzerakoan egiten dela idatzi zuen Antonio Machado poetak, eta biderik luzeenak ere nahitaez lehenbiziko urratsetik hasi behar duela ikasi genuen", azaldu zuen, saria jasotzean, Aitor Arotzenak, *Ttipi-Ttapa*-ren zuzendariak, eta hauxe gaineratu: "Lehenbiziko zenbaki hartako azalerako bota pare baten marrazkia oparitu zigun Larramendi margolari beratarrak. Orduz geroztik, bota haiek jantzi eta egin dugu bidea, tipi-tapa. Noizbehinka argia ikustetik, hamabostean behin argitaratze-ara pasatu zen aldizkaria. Interneten edukia zintzilikatzen ere hasi ginen, 1996an, duela 22 urte, eta hori egiten euskarazko lehen komunikabidea izan ginen". Eskerrak eman zizkien herrietako berriemaileei eta laguntzaileei eta babesa eman dieten erakundeei eta komertzioei.



EHU-KO GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

NEKANE BALLUERKA
EHU-KO ERREKTOREA

"40 urtean ehunka kazetari trebatu ditu unibertsitateak"

Euskal kazetari profesionalik gabe, ez legoke euskarazko kazetaritza modernorik. Euskarazko kazetaritza unibertsitatean sartu zuelako eta geroztik globalizazioaren erronkei eta euskal gizartearen komunikazio beharrei erantzuteko gai diren profesionalak prestatzen jarraitu duelako, hurrengo mugarria EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak jaso zuen. 1991ko ekainean lizentziatu zen ikasgai guztiak euskaraz egin zituen lehen belaunaldia.

Euskara, komunikaziorako

Nekane Balluerkak, EHUko errektoreak, poza eta esker ona adierazi zituen hitzartzean. Zaila bat ere azaldu zuen: "Ez dakit mende honetako euskaldunok jabetzen ote garen XX. mendearen erdialdean euskaraz idaztea zer zen, Rikardo Arregi bizi zen garaian, hain zuzen ere. Euskarazko hedabideak, unibertsitatean euskaraz ikasteko aukera... sasoi hartan ez zen halakorik, eta, gainera, egoera politiko hartan bazirudien halakorik izatea ezinezkoa izango zela. Giro ilun hartan idatzi zuen Rikardo Arregik. Jakitun zen kazetaritza euskaraz egiteak zekartzan arazoez, eta bazekien kazetaritzaren helburua informazio argi eta zuzena ematea zela. Horretarako, euskara bizi bat behar zela. Komunikazioaren zerbitzura egongo zen euskara". Adierazi zuen, baita ere, fakultatearen ekarpena "ezinbestekoa" izan dela, eta dela, euskal kazetaritzaren mundurako.



EITB

MAITE ITURBE
EITB-REN ZUZENDARI NAGUSIA

"Euskararen normalizazioan laguntzen jarraituko dugu"

Epaimahaiaren hitzetan, EITBk banatzen du bitan euskarazko kazetaritzaren historia, euskarazko kazetaritzaren aitzindariak aitzindari, lehen uzta "oso eta betea" 1982an hasi ginelako jasotzen. Mugarri horretako kazetariak kazetari hizkera betea osatu dute urtez urte kiroletan, politikan eta beste hainbat esparrutan. Gaur egun berezkozat ditugun hitz eta esapideak sortuz, askotan. Hizkuntzari dagokionez eta herritarrek euskaraz informatu eta entretenitzerakoan, bultzagile izan dira medio horretako kazetariak, epaimahaiaren hitzetan.

Euskal komunitatea indartzeko

"Rikardo Arregi sariaren klabeak kalitatea, eredugarritasuna eta berrikuntza izanik, orain arteko sarituekin batera EITB zerrenda estimatu horretan egoteak harro sentiarazten gaitu, eta indartu ere bai. 30 urte, 10 mugarri da leloa, eta oso garrantzitsutzat jotzen dugu EITB hamar mugarrietako bat izatea, eta hurrengo mugarrien protagonista izateko ahaleginetan jarraituko dugu", azaldu zuen EITBko zuzendari Maite Iturbek. Gaineratu zuen, era berean, hedabide publikoa izanik, komunikazio arloan saiaturako diru-gizartearen esparru zintzoena izaten eta euskararen normalizaziorako lagungarri, batuaren erabileraz eta baita ere euskalki desberdinak erakutsiz. Zubi lanak egiten jarraituko dutela esan zuen, kultura eta euskal komunitatea indartzeko.



'ELHUYAR'

AITZIBER AGIRRE
'ELHUYAR' ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA

"Euskara presente egon dadila esparru guzti-guztietan"

Euskaratik zientziara begira jarri eta zientziaren berri euskaraz ematea ahalbidetu du hurrengo mugarriak, *Elhuyar*-ek. 1974an jaioa, bere zabalkundeko lehen zenbakia 1985ean argitaratu zuen. Halley kometa, osasun eta medikuntza gaiak, teknologia mekanikoa eta digitala, biologia... Gai horiek eta beste asko euskaraz jorratu eta zabaldu dituelako saritu du epaimahaiak *Elhuyar*. 2002an pasa zen elkarre izatetik fundaziora izatera.

Zientzian ere, iritzi kritikoa

"Bere txikitasunean, baina eguneroko saiaturaren gara zientzia herritarren eskura jartzen. Eman diren aurrerapausoen berri ematen, zientzian piztu diren eztabaidak plazaratzen. Herritar bakoitzak, gutako bakoitzak, izan dezagun zientziaren aurrean iritzi kritikoa. Zeren zientzia gure etorkizuna, gizartearen etorkizuna marrazten ari da etengabe. Hortaz, zientziak gutako askorengan sortzen duen zirrarez eta liluraz harago, denoi dagokigun arduraz jokatu eta gizarte kritikoa bat sortzea. Horretarako tresnak ematea da, eta izan da, betidanik, *Elhuyar*-en helburua. Eta, hain zuzen ere, horregatik da hain garrantzitsua, guretzat, euskal kazetaritzaren festa honetan parte hartzea. Bat egiten duelako *Elhuyar*-ek bere-berean duen helburuarekin. Euskarak dena zizpriztindu dezala. Presente egon dadila gizartearen garapena baldintzatzen duten esparru guzti-guztietan".



'EUSKALDUNON EGUNKARIA'

MARTXELO OTAMENDI
'EGUNKARIA'-REN ZUZENDARIA

"Euskarri batean edo bestean, komunikatzeko nahiak iraun egingo du"

Lana eginaz goaz aurrera, kate horretan denok batera gogorki loturik gaude, zioen poetak, eta hala etorri zen, 1990ean, *Euskaldunon Egunkaria*, gerra garaiko *Egunaz* geroko euskarazko egunkari bakarra. Epaimahaiaren hitzetan, "funtsezkoa" da euskararen biziberritzea eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubideari egin zion ekarpena. Eta "erabakigarria orobat" euskarari prentsa idatzian eta Interneten egindako lekua. 2003an, itxi egin behar izan zuten, Auzitegi Nazionalaren aginduz. Egun, *Berria*-n bizirik dirau.

Eraso "gogorrek" jasan behar

Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ren zuzendariak, hitzartzean, gogora ekarri zuen 2003an jasan behar izan zituzten erasoak: "*Egunkaria* itxi, 150 langile kalera, ia hoge atxilotu, torturak, epaiketa... (...) Horren ondoren, gure herriak urteetan eman duen elkartasun uholde handienetako batek ahalbidetu zuen *Berria* egunkaria eta bestelako proiektuak sortzea, ia bost milioi euroko bultzadarekin". Eta hau gaineratu zuen: "Ezer ez da izango betiko, baina, ororen gainera, modu batera edo bestera, euskarri batean edo bestean, komunikatzeko nahiak iraun egingo du. Komunikatzeko nahi horrek ematen digu bizipoza lantegi honetan gabiltzanoi, gure etxeko langile saiatu eta profesionalei". Aitortu zuen, baita ere, alhoan izan dituzten eta gaur egun dituzten guztiei zor dietela jasotako saria.



EUSKAL IRRATIAK

MARITXU LOPEPE
EUSKAL IRRATIAK FEDERAZIOA

"Balio batzuen ekarle ere bagara edo izan nahi dugu"

Azken hamarkadetan ipar Euskal Herrian, euskal irratien sorreraren lekuko ere izan gara, eta hori ere saritu nahi izan zuen epaimahaiak. Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Antxeta Irratia, gerora Euskal Irratiak deitutako taldea. 80ko hamarkadako aitzindari haien proiektua sendotu eta erronka berriei ekiteko gai izan den talde "sendoa" osatu dutela azpimarratu zuten eta herri mugimenduetatik sortu diren euskarazko irratia biltzen dituen elkarteak ere saritu zuten.

Eragina hizkuntzaren erabileran

"Plazer handi bat eta ohore bat da, guretzako, sari hau eskuratzeko. Sortu, biziarazi eta animatu duten langile eta laguntzaile guztiei eskaintzen diegu. Kazetaritza lanaz gain, hemen diren beste guztiek bezala, euskararen sustatzea eta garatzea gure helburu eta misioetan sartzen dugu. Nafarroa Beherean, Xiberoan eta Lapurdin uste dut gure presentzia lanak indartu duela beti gure hizkuntzaren erabilpena", azaldu zuen federazioko Maritxu Lopepek. "Hedabide euskaldunak izateaz gain, uste dut gu, irratia sarean, behintzat, eta harago ere balio batzuen ekarle garelako edo izan nahi dugula, behar dugula jendarte bortitz eta indibidualista honetan esperantza, elkartasuna, errespetua eta baikortasuna sustatzea. Mundu gris honetan irria ekartzea ere gure eginbeharretan da. Anbizioko bide-orria badugu hor ondorengo 30 urteetarako".



'EIBAR.ORG'

LUISTXO FERNANDEZ
'EIBAR.ORG'

"Internet jende arruntaren ahotsa ere izan daiteke"

Eibartarrek ekintzaile izatearen ospea daukate, eta, euskarazko komunikazioari dagokionez, fama hori ondo irabazia dute, epaimahaiaren esanetan. 1998an, *Eibartarrak* komunikazio postazterrenda sortu zuten, Interneten euskarazko edukiak behar zirela ohartuta. Gauza izan dira "punta-puntako teknologia eta aurrerabideak" jartzeko euskararen zerbitzura, euskarazko komunikazioa aro birtualera egokitu eta bide berriak zabaltzeagatik, *Eibar.org* plataforma digitalak ere jaso zuen saria.

Gogoia besterik ez da falta

"Ohore ikaragarria da elkarte txiki baten izenean sari hau jasotzea, batez ere, izendatutako beste mugarriak elkarteak baino gehiago erakundeak direlako euskarazko kulturaren eta komunikazioaren. Mugarri horietako asko, gu bezala, behetik gora hazitako proiektuak dira, kaletik, herritik, herritarrek sortutakoak, baina, haiek gora iritsi diren bezala, gu xumeago geratu gara. Hala ere, uste dut baduela balio bat gure izateko arrazoiak eta iruditzen zait gaur egunean Internet ikusten dugula halako erraldoi batzuek kontrolatzen duten iritzi jario kontrolatuaren esparru bat bezala, eta nik gurtatu egin nahi dut hori. Nik uste dut, benetan, herritarren, jende arruntaren, ahotsa ere izan daitekeela, eta, horretarako, teknologia apur bat eduki eta gauzak esan eta egiteko gogoia besterik ez dela falta", adierazi zuen Luixto Fernandezek.

Debagoiendar saridun ugari

Rikardo Arregi Sarien hogeita hamar urteko ibilbidean, hamahiru izan dira Debagoienara etorri diren sariak, bai kazetarien bakarkako eta bai lantalde osoen lanengatik; guztiak ere, kalitatezko kazetaritza-lanaren emaitza argiak

Amaia Zabala ARRASATE

Rikardo Arregi Sariak hogeita hamar urte bete dituzte aurten, eta urte hauetan guztietan debagoiendarrek presentzia handia izan dute; hain zuzen ere, Herrietako Aldizkari Sariak, Sari Nagusiak eta Ohorezko Aipamenak... denetarik etorri da eskualdera.

1989an eman zuten lehen Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, eta, handik bi urtera, 1990ean etorri zen lehen saria eskualdera, John Andueza kazetari arrasatearrak *Arrasate Press* aldizkarian argitaratutako *Egun bat Elenaren bizitzan* artikulua Herrietako Aldizkari Saria jaso baitzuen. Anduezak down sindromea duen arreba bat du, eta, horren ondorioz, betidanik izan du sentsibilitate berezia gai horrekiko. Down sindromea zuen Musakolako (Arrasate) neska baten bizitzako egun bat kontatzen zuen artikulua batean; Elena Isasmendirena, hain zuzen. Anduezak poz handiz gogoratzen du saria, eta erreportajeak meritu handia izan zuela gaineratu du. "Gaur egun normala den arren, garai hartan gizartean hitz egitea ezohikoa zen gai bat landu eta etxe guztietara heltzea lortu genuen, ahalik eta modu naturalenean landu genuen gaia, eta, ziurrenik, euskaraz down sindromearen gaia landu zuten lehen aldizkaria izango zen *Arrasate Press*".

Urte berean, Martin Garitano kazetari, politikari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu ohi bergararrak Sekzioa Saria eraman zuen, Pello Zubiria, Nerea Azurmendi eta Jose Felix Azurmendi lankideekin batera, *Betaurrekorik gabe* titulupean *Argia*-n argitaratutako artikulua sortzeari.

Herrietako Aldizkari Saria

Handik urtebetera, 1991n, berriro ere John Anduezak Herrietako Aldizkari Saria jaso zuen, *Berrigara* aldizkarian argitaratutako *Txomin Pineda, berea ez den gerran* erreportajeagatik. Golkoko gerran soldadu zebilen mutil gazte bergarar bati buruzko erreportajea zen eta Anduezak dio bere familiei eta lagunei bidalitako gutun eta argazkiez baliatu zirela erreportajea osatzeko. Bestalde, Anduezak nabarmendu du argazkietan, gaztea pertsonaia ezagunekin ondo pasatzen agertzen zela –Marta Sanchez abeslariarekin, esaterako– eta herrian "sekulako nobedadea" izan zela hori. Kazetariak gaineratu du gai serio eta triste bati erreportajearen buelta eman eta umorea eta bizipoza sartzen jakiteagatik saritu zuela Rikardo Arregi Sarien epaimahaiak.

Rikardo Arregi Sarien 6. edizioan, berriz, 1994an, Iñigo Arregi kazetariak eraman zuen Herrietako Aldizkari Saria, Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkarian idatzitako *Urbiako fondaren isiltasunean protagonistak mintzo* erreportajeagatik. "Herriak

"FONDAREN AUZIA IKERTU GENUEN; PIL-PILEAN ZEGOEN GARAI HARTAN"

IÑIGO ARREGI, KAZETARIA

"OÑATIREKIN LOTURA ZUELA ESAN ORDUKO ONARTU ZUEN PETERSENEK"

LEIRE KORTABARRIA, KAZETARIA

ez zuen ulertzen zergatik zegoen fonda itxita; gaia pil-pilean zegoen, eta gu, auzia ikertu eta erreportaje honen bitartez, herriarren galderei erantzuten saiatu ginen", dio Arregik. Horretarako, auzi hartan zeresana zuten hiru pertsonarekin hitz egin zuten: Martin Etxezarreta, ordura arte fondako jabea izana; Patxi Alustiza legazpiarra, fonda erosi zuena; eta fonda zegoen lursailen jabea. "Garai hartan, Patxi Alustizari minbizia etorri zitzaion, eta erreportajea argitaratu eta egun gutxira hil zen; gogoan dut erreportaje hartarako elkarrizketa egitera Urbiara bertara igo nahi izan zuela, nahiz eta ordurako oinaze handiak sufritu". Bestalde, kazetariak dio aldizkariaren hastapenetan izanik, poztasun handiz jaso zutela saria, eta oso lagungarri izan zutela.

Oñatiko izarra

Nahiz eta hasiera batean sariak jarraian etorri Debagoienara, hutsune handi bat ere izan zen, hurrengo saria handik sei urtera etorri baitzen, 2003an, Rikardo Arregi Sarien hamabargarren edizioan, hain zuzen. Leire Kortabarria Goienako kazetariak Aipamen Berezia Saria jaso zuen orduko *CSI* telesail arrakastatsuko aktore Billy Petersen estatubatuarrari eginiko elkarrizketagatik. Hura Oñatin bizi izan zen denbora batez, eta haren alaba herriaren bertan jaioa da. Kortabarriak bere osabaren bitartez lortu zuen aktorearekin harremanetan jartzea: "Oñatirekin lotura zuen elkarrizketa bat zela esan orduko onartu zuen proposamena, eta herriarekiko oso oroitzapen onak eta hitz politikak izan zituen". Horretaz



John Andueza, 1990ean, saria jasotzen. RAKS



John Andueza, 1991n, saria jasotzen. RAKS



Iñigo Arregi -ezkerretik lehena-, 1994an, saria jasotzen. RAKS



Leire Kortabarria -kamiseta zuriarekin-, 2003an, saria jasotzen. RAKS



Pello Zabala, 2006an, Ohorezko Aipamena jasota. RAKS



Inazio Arregi, 2011n, Ohorezko Aipamena jasota. GOIENA



Inazio Arregi eta Eneko Azkarate, 2011n, saria jasotzen. GOIENA



Beñat Zamalloa –eskuinaldean–, 2014an, saria jasotzen. RAKS



Oihane Agirre (1), Joxe Arantzabal (2) eta Julen Iriondo (7), 2015ean. GOIENA



Kulturriketak saioko lantaldea, 2017an, saria jasotzen. GOIENA

gain, kazetariak azpimarratu du Petersen "momentuko izarra" izanik, Oñatitik eta Debagoienetik kanpo ere interes handia izan zuela elkarrizketak.

Beñardo Kortabarria antzularra bi urtean segidan izan zen saritua: lehena, 2005ean. Aipamen Berezia Saria jaso zuen, *Elhuyar* aldizkariko Aitziber Agirre, Eneko Imaz, Guillermo Roa eta Ana Galarragarekin batera. *Erraustegiak sutan* artikulua. Bigarrena, berriz, 2006an, Elhuyar Fundazioko Zientziaren Komunikazio arloko beste hainbat profesionalen batera EITBko *Teknopolis* telebista saioagatik eta Euskadi Irratiko *Norteko Ferrokarria* irratsaioagatik.

Urte berean, Pello Zabala frantziakotzar, idazle eta meteorologoa ere Ohorezko Aipamena Saria jaso zuen.

Sari Nagusia Goienarentzat

Jarraian, 2011n, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren hogeita hirugarren edizioan, kazetaritzan *Web 2.0* terminoa pixkanaka lekua hartzen hasia zen garaian, Goiena Komunikazio Taldeak Sari Nagusia jaso zuen,

"sarearen eraberrikuntza eta hedabide multimedia integrala eratzeagatik". Eneko Azkaratek, Goienako eduki arduradunak, nabarmendu du aitzindariak izan zirela, garai hartan ez zen eta ohikoa kazetari berak albistea euskarri ezberdinetarako lantzea. "Mundu mailako hedabideetan hasiak ziren konbergentziarako pausoak ematen eta ikusi genuen guretzako ere oso egokia zela apustu hori egitea", dio Azkaratek. Gaineratu du lorpen handia izan zela epaimahaiak baloratzea eta saritzea *Goiena.eus*-en egindako lana.

"GOIENA.EUS'-EN EGIN GENUEN APUSTUA SARITZEA LORPEN HANDIA IZAN ZEN"

ENEKO AZKARATE, KAZETARIA

"TXAPELKETAREN INGURUKO JARRAIPIEN OSOA EGIN NUEN EUSKARRI ASKOTAN"

BEÑAT ZAMALLOA, KAZETARIA

Urte berean, Inazio Arregi Oñatiko apaizak, Miren Jone Azurzarekin batera, Ohorezko Aipamena Saria jaso zuen, *Erleak* aldizkariagatik.

2013ko Bertso Txapelketa

Aretxabaletar batek ere eraman du Rikardo Arregi Kazetaritza Sari Nagusia, 2014an. Hain zuzen ere, Beñat Zamalloa kazetaria izan zen saritua, 2013ko Bertsolari Txapelketaren inguruan hainbat hedabideetan egindako lanengatik. "Txapelketaren inguruko jarraipen osoa egin nuen, aurretikoak, kronikak, erreportajeak eta baita bertsolariekin txapelketaren ondoreneko elkarrizketak ere", dio Zamalloak. Gainera, lan haiek hainbat euskarritako hedabideetako egin zituen kazetariak: *Berrira*-rako, Bizkaia Irratirako, Radio Vitoriarako eta Hamaika Tebistarako. Zamalloak dio egun haiek herri batetik bestera igaro zituela eta momentu berezi asko bizi izan zituela; esate baterako, Amets Arzallusi, Hendaian, gauez egin zion emozioaz beteriko elkarrizketa, finalerako egun gutxi falta zirela.

Hiesaren aurkako borroka

2015ean, beste behin, Goienako kazetari batek eraman zuen Sari Nagusia; kasu hartan, Julen Iriondo oñatiarrak, *Jon Salaberri* izeneko ikus-entzunezkoagatik. Iriondok azpimarratu du Goienako lantaldeaz gain, Joxe Aranzabalek ere meritu handia izan zuela, hark *Puntua* aldizkariako egindako erreportaje batetik abiatu zirelako. "Salaberri hiesak kutsatutako gaixoa zen, baina, geldi geratu beharrean, ekintzetara jo eta etorkizuneko gaixoei bizi kalitate hobea izan zezaten lan

"SALABERRI HIESAREN AURKAKO ERREFERENTE BIHURTU ZEN"

JULEN IRIONDO, KAZETARIA

"KULTURRIKETAK' LANTALDE OSOAK EGINDAKO LANAREN FRUITUA ZEN"

TXOMIN MADINA, KAZETARIA

handia egin zuen; informazio postuak jarri eta telebistara gaiaz hitz egitera joan, esaterako. Hala, hiesaren aurkako erreferente bihurtu zen", dio Iriondok. Gaineratu du jendeak gogo handia zeukala Salaberri eskerrak emateko, egin zuen lanagatik, eta Rikardo Arregi Sariaren aitortza hura oso polita izan zela.

'Kulturriketak' saioa

Azkenik, iaz, 2017an, Goienaren *Kulturriketak* saioak Sari Nagusia jaso zuen. Saio bi kultur-gile elkartu eta elkarren artean hitz egiten jartzean zetzan. Saiko ekoizpen lan arduradun eta gidoiari Txomin Madinak azpimarratu du Goienaren lantalde osoak egindako lanaren fruitua izan zela: teknikariek, kazetariek... "Guztiek zuten euren ardura saioan". Bestalde, Madinak nabarmendu du saioaren arrakastan kultur-gileek izan zuten meritu; izan ere, behin saioa hasita, haiek bihurtzen ziren protagonista eta arduradun nagusi. "Euskal Herriko punta ezberdinetako kultur-gileak Arrasaten elkartzea ere erronka handia izan zen" dio Madinak.



ARRATE ILLARO

ASTE HONETAN

ASIER ILLARRAMENDI

ttop

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.



Ttop euskarazko aldizkari digitala eta multimedia deskargatu zure mugikor edo tabletean.



Etkez etzekoen greba amaitu da, baina lana dugu aurretik

ENEKO BARBERENA MONDRAGON
ARRASATEKO EH BILDUREN IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk zoriondu egin nahi ditu Arrasateko etkez etzeko langileak lortu dutenagatik. Lau hilabetez kalean mobilizatzen egotea ez da erraza eta tinko eutsi diete euren aldarrikapenei.

Dena den, ulertzen dugu lana geratzen dela egiteke. Arrasateko Udalak zerbitzu publikoa indartzen jarraitu beharra du, ordu publiko gehiago eskainiz eta erabiltzaileen artean erraztasunak emanez, zerbitzua Udalaren bidez jaso dezaten.

EH Bilduri dagokionez, hausnartu dugu ere udal zerbitzu hauetan sektore feminizatu eta prekarizatueta lan baldintza duinak izateak duen garrantziaz. Lehiaketa publikoetan klausula sozialak eta lan hitzarmen ahalik eta hurbilenak, estatalak ez direnak, edukitzeak duen garrantziaz. Oposizioan egon garenean mahai gainean jarri ditugu behar hauek, kontratazio lege publiko berriak ahalbidetzen dituen aukerak baliatzeaz hitz egin dugu maiz, eta gobernuan gaudenean zorrotz beteko dugu langileen lan baldintzak hobetzearen beharra.

Bada garaia herrian bizi modu duinak bermatzeko, bai

udal zerbitzuen erabiltzaileenak, bai hauek aurrera eroaten dituzten langileenak. EH Bilduk horren aldeko apustu irmoa egiten du.

Trapu zikinak astintzen

MADDI TXINTXURRETA MAIZTEGI
OÑATI

Espainiako Estatuan eta, oro har, Europan, gauzak nahiko gaizki doazela iristen zaigu komunikabideetatik: krisi ekonomikoa, ustelkeria, eta abar. EAEn, ordea, oasi moduko batean bizi omen gara, eta, garai onenak bizitzen ari ez bagara ere, badirudi egoera ez dela hain gordina: ekonomikoki ez gaude hain gaizki, krisiaren ondorioak ez dira hain latzak –esate baterako, langabezia tasak ez dira hain altuak–, gure ogasunen diru bilketa ona izaten ari da urtez urte, eta abar.

Dauzkagun konpetentziei esker, Eusko Jaurlaritzak bestelako kudeaketa bat egiteko aukera dauka, eta profesionalen osatutako gobernu honek behar bezala erantzuten omen dio bizi dugun garai gorabeheratsuari. Hori da, behintzat, PNVk behin eta berriz helarazten digun mezua.

Tarteka, ordea, bestelako berriak ere agertu izan zaizkigu komunikabideetan: ustezko ustelkeria kasuak –De Miguel kasua dugu une hauetan entzutetsuena–, gailakostu esanguratsuak obra

publikoetan –ia %50era iritsi dira AHTaren zati batzuetan–, Osakidetza OPEen eskandalua, lagunaren arteko mesedeak, eta abar.

Hau da, badirudi ustezko *euskal oasi* honetan ere badaudela gertaera ilunak, eta gai hauen inguruan gehiago jakin nahiko genukeen herritar talde batek orain arte apenas landu diren auzi hauek argitara ateratzeko hautua egin dugu.

Horretarako, *Astintzen* dinamika jarri dugu martxan. Orain arte iluntasunean mantendu nahi izan dituzten gaiak plazara atera eta hauen inguruko eztabaida publikoa sustatzea da gure helburua, eta, horretarako, hitzaldi ziklo bat egingo dugu datozen hilabeteetan.

Lehenengo hitzorduan, Osakidetza OPEen eskandalua izango dugu mintzagai. Horretarako, Rebeka Ubera –EH Bilduko legebiltzarkidea–, Karlos Ibaruren –epaimahaietan dabilen medikua– eta Jesus Oñate –LABeko ordezkaria– izango ditugu azaroaren 7an, arratsaldeko zazpitan, Kultur Etxean.

Azken urte luzeetan Eusko Jaurlaritzan egon den kudeaketa ereduaren inguruan eztabaidatu eta ezkutatu izan diren hainbat kontu argitu nahiko genituzke hitzaldi ziklo honetan, eta esan beharrik ez dago oñatiar guztiak daudela gonbidatuta.

Animatu eta parte hartu!

Batasunerako topaguneak

IÑAKI IDIGORAS IGARTUA
OÑATI

Maltzagan bada, *O-z* gain, beste sinbolo bat: *Y*. Euskaltzaindiak ez zuen lehenengoan sartu geurea ere baden hau euskal alfabetoan. Forma horri urkila deitzen diogu. Baserri munduko erabilerez gain, itsasontzien brankako pieza garrantzitsua ere bada. Itsasoaren oldarraldiak kalterik gabe jasateko, pieza bakarrekoa egiten zuten Erdi Aroko euskal ingeniariak, horretarako haritzak espresuki aukeratu, Albaolan ikusi ahal dugun moduan.

Maltzagan bi ibai elkartzan dira *Y* eran. Sorluzetik doan Deba ibaiari Eibartik datorren Ego batzen zaio –eta alderantziz–, eta bi urak bat eginda doaz Elgoibarrerantz. Deba ibaira dozenaka erreka-adar batzen dira, beste hainbeste *Y* topagunetan. Adar bakoitzari, beste horrenbeste erreka batzen zaizkio, era berean. Denak, itsasora bidean, determinazioz.

Y ikusteko, bi era ditugu: behetik gora, dibergentzian, Telesforok ikusi zuen bezala: batuta iritsi, gero banatzeko. Eta goitik behera, konbergentzian, urek itsasora bidean egiten duten bezalaxe. Naturan adibide gehiago ere baditugu: zuhaitzaren sustraiek konbergentzian batzen dituzte ur eta mineralak, enborrean batu

eta hemendik abarretan zabaltzeko, dibergentzian. Gure gorputzean ere, odola zabaltzen dute arteriek, dibergentzian, zelula guztietara, eta zainek hauetatik bihotzera bueltatu, konbergentzian. Nolabaiteko simetria batean.

Batasuna zen Telesfonoren metaforan abiapuntu. Non gaude, baina, burujabetzara bidean? Banatuta. Errealitate honetatik abiatuz, lehenengo, batu egin behar dugulakoan nago, urak egiten duen eran. Itsasoaren baitako bakea eta indarra nekez lirakeke direna, berau elikatzen duten ibai guztien bategiteko determinaziorik gabe.

Euskaldunok, itsasoak bezalaxe, bakea eta indarra izan ditzagun, batasuna dugu behar. Nola asebate behar hau? Eginez. Batuz. Ez dago besterik. Xaukena xauk.

Nola, baina? Urak, lurreko orografian behera doala, ezinbesteko bide bat egiten du, inolako esfortzu barik, zero energiarekin, topagunez topagune itsasoraino. Zerk eragiten du urak bere bidea egin dezan, determinazio osoz, oro itsasoan batuz?

Bi gauzak: orografiak bidea zehazten dio, eta grabitate indarrak, *g-k*, bultzatu.

Zein da gure banaketaren orografia? Nola gaude banatuta? Nola banatu gaituzte? Erradiografia hori dateke gure orografia. Banatze puntuak, topagune. Ura *g-k* bultzatzen badu, zein indarrek bultzatzen gaitu gu? Zein da gure *g*?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

VALEN MOÑUX

'Wergara', wolframaren 'W'-z

"Bergararrok epelak gaittuk". Esaldi hau entzun nion herrikide bati duela urte batzuk, eta, ordutik hona, askotan sartu izan dut elkarrizketa ugaritan, oso ondo adierazten baitu gure izaera kolektiboa.

Uste dut, orokorki, ez dugula adierazten harrotasun handirik gure herriak dituen dohainei buruz. Ez nuke esango hotzak garenik, baina oso-oso beroak ere ez.

Adibidez, edozein ikuskizunetan ikusleen erantzuna. Bergararron erreakzio mailak bi izaten dira: ohiko txalo zaparrada normala... edo pixka bat luzeagoa. Inguruko herrietan, berriz, ikusleek zutik txalotzea oso normala da. "Eske epelak gaittuk", pentsatzen dut, pixka bat kontsolatzeko.

Bergara 750 ikuskizuna prestatzeko dokumentazio bila, Rosa Errazkinekin egon nintzen, eta, aurretik adierazitakoaren harira, antzerako burutazioa adierazi zidan. Bera kimikaria

EZ DUGU ADIERAZTEN HARROTASUN HANDIRIK GURE HERRIAK DITUEN DOHAINI BURUZ

da, eta Laboratorium museoko arduradun zientifikoa. Zioen bergararrok ez diogula garrantzi nahikorik ematen Elhuyar anaiei aurkikuntzari. Niri, pertsonalki, bere ezagutzaren ondorengo entusiasmoa

kontagiatu zidan eta ahalegin guztiak egin nituen ikuskizuneko entzunezkoan 1783. urte historikoa azpimarratzeko, wolframaren aurkikuntzaren data.

Horrekin lotuta, egun historikoa bizi izan dugu urriaren 20an. European Phisycal Society-k Zientziako *Leku Historiko* izendatu du Bergara. Bai Udalak eta bai goi mailako administrazio guztiek dena eman zuten ekitaldietan eta benetan ahaztu ezinena eguna izan zen.

Seminarixoko ekitaldian esandakoak oso ondo jasota daude azkenengo *Puntua* aldizkarian. Jakiundeko ohorezko presidente Pedro Miguel Etxeniketik emandako maisu-klasea nahikoa izango litzateke bergararron kontzientzia kolektiboa *berotzeko*. Kuriositatez, wolframaren ezaugarri garrantzitsua bere fusio temperatura altua da, gainera.

Aipatutako *Puntua*-ren lehenengo orrian, gainera, nolabait jasota gelditu zen nire gustukoa den eslogan berri bat: *Wergara wolframaren 'W'-z idazten da*.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Irristadak

ENRIKE GISASOLA

HTTPS://LABUR.EUS/MFEWF
'EIBAR.ORG'-N ARGITARATUA

Irrist egin eta jausi egin zen Loixola baserriko Oier uda-hasiera busti eta ilun honetan.

Eguren baserriko teilatuan mantenu-lanak egitera joan eta zortzi metrotik behera, hura danbatekoa.

Hamabost egunean zainketa berezietan igarota, etxean da gizajoa.

Berriro jaio da Loixola. Arratekoari eta bere gazte-sasoari esker osatuko da.

Orain dela 10 bat urte, Debabarreneko baserriarren ordezkari sindikala nintzela,

Mendaroko baserri batean lan-istripua gertatu zen.

Gauxitxa baserriko Antonio zendu zen simaurrez betetako gurdia irauli eta azpian hartuta.

Sindikatura jo eta orduko presidenteari proposatu nion kalera irtetea lan-istripua salatzeko.

Nere harridurarako, ez zuen begi onez ikusi. Ea "zeinen aurrean egin behar genuen protesta" galdetu zidan, "geu izanik langile eta ugazaba".

Zalantza barik, prekaritatean diharduen beharginen ordezkari izatea nahiko lukeen baten irristada handia.

Familiak elikaduran inbertitzen duten diru-

kopurua %40tik %10era igaro da hamarkada batzuetan.

Gutxiago jaten da egun? Gizentasun-datu kezkarrik ez diote halakorik.

Zeinen kontura merkatu da sabela betetzea orduan?

Argi dago: landareak, animaliak eta nekazariak gogor estututa, zukututa, muturreraino ustiatuta. Irristada itzela hau ere, gizarte osasuntsua nahi badugu behintzat.

Izan ere, norabidea aldatu ezean, ez da egongo jainkosarik datorkigun danbatekotik salbatuko gaituenik, ezta Arratekoak ere.

Animo Oier!

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Etorkinek arazo handiagoa dute etxea errentan hartzeko"

MARIBEL VAQUERO BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARIA

Eneko Azkarate DONOSTIA
SOS Arrazakeriarekin batera egindako lan batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztatu du etorkinek zailtasun handiagoak dituztela etxeak errentan hartzeko. **Etxeak errentan jartzeko orduan, etorkinak diskriminatzen dira?** Egin diren *testing*-etan, diskriminazio egoerak gertatu dira. Hori antzeman egin da. Tratu desberdin honen berri askotan eman dute etorkinek eta haien eskubideak babesteko erakundeek, eta, proba honekin, diskriminazio egoera zehatz hori nola eta zein neurritan gertatu den jakin nahi izan du Aldundiak. **Zergatik gertatzen da?** Jarrera hauek gizartearen dauden aurreiritzi eta esamesen ondorio dira. Batzuetan, ezkutuko diskriminazioa da, tratuan gertatzen da, oso subjektiboa izan daiteke balorazioa. **Nola egin duzue azterketa?** Egoera berean –kontratu, soldata, eskaera bera...–



Maribel Vaquero, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaria. GFA

dauden bi pertsona joaten dira. Lehenengo, *autoktonoa*, zelanbait esatearren, eta, gero, jatorri etorkina duena, konparatu nahi izan baita egoera berean tratua ezberdina den edo ez. Eta

egiaztatu ahal izan da horrela dela, kasu askotan. **Gipuzkoako Foru Aldundia egon da sektorearekin, etxeak errentan jartzeko dituzten enprekin, emaitzen berri emateko?**

Lehenik eta behin, datuok higiezinetakoa agenteekin, gainontzeko administrazioekin eta zuzenbidean aditu direnekin partekatu nahi ditugu, eta lansaioak antolatuko dira. Sektore pribatuaren, publikoaren eta elkartearen aldetik elkarlana eskatzen du honek. Lehen urratsa sentsibilizazioarekin jarraitzea izango da, horretan dabil Gipuzkoako Foru Aldundia eta horretan jarraituko du. Diskriminazio egoera zehatz hauei dagokienez, gaia landuko da inplikaturik dauden eragileekin, eta har daitezkeen neurriak aztertuko dira. Etorkizunean, desberdinkeriarik gertatu ez dadin zer egin genezakeen aztertu beharko dugu. **Zer diote higiezin agentziek?** Ondorio hauek beraiekin eta adituekin partekatuko ditugu. Hausnarketa saioa urtea amaitu aurretik egin nahi da. **Neurririk hartuko duzue egoera aldatzeko? Zein neurri?** Gaia konplexua da, jabetza pribatua eragin nahi delako. Erakunde publiko zein pribatuek elkarrekin lan egin beharko dugu, ahal den neurrian, berdintasun aukerak sortzeko. Klabeetako bat sentsibilizazioa da.

HAU BE BADOGU!

Negua udazkenari aurreratu zaio



Hotza eta elurra bat-batean heldu dira Euskal Herrira udazken gozoaren erdian. Erabiltzaileak ere harritu egin dira:

@kolore: "Egun on! Negua sartu da udazkenean".

@atargote: "Kasualitatez jakin dut gaurko egunari San Simon eta San Juda dagozkiola izendegian. Ezin aproposagorik. *San Simon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da*".

@n4vajaz0: "Mesedez ozen esan negua heldu egin delaaaa".

Julen Lopetegi, txantxen erdigunean

Gutxi irau du entrenatzaile gipuzkoarrak Real Madril taldeko aulkian. Bartzelonaren aurka 5-1 galdu ondoren, kaleratu egin dute: @elchirincirco: "Lopetegi bostekoa ematen agurtu da Bartzelonan" (itzulita). @alexandro86: "Astelehen goiz hau are gogorragoa izango da Julen Lopetegirentzat, curriculumak bidaltzen eman du-eta goiza" (itzulita).

@nuria116: "Karma Lopetegiren kontra, berriz".

Altsasuko gazteek, 717 egun espetxean

Kartzelan ia bi urte daramatela salatu dute asteon, berriz ere, sare sozialetan, eta, hori dela eta #Altsasu eta #AltsasukoakAske traolak *trending topic* izan dira:

@mamarru: "Adurrek, Jokinek eta Oihanek 717 egun daramate kartzelan. Jonek, Anderrek, Aratzek, Iñakik eta Julenek, 148 egun...".

@altsasugurasoak: "Altsasuko ferietan ere gure semeak gogoan izan dituzte. Kaleetako hainbat bazter aldarrikapenarekin bete dira".

ITURRI ONETIK

Adierazpena Iñaki Etxaberen alde

Arrasateko Udalbatzak Iñaki Etxabe eta German Agirre arrasatearren aldeko adierazpen instituzionala onartuko du datorren martitzeneko osoko bilkuran. Isaias Carrasco erail zutela 10 urte betetzean martxoan onartu zen testua erabiliko da Etxaberen eta Agirreraren erailketak ere "bidegabeak" izan zirela onartzeko. "Indarkeriaren bidegabekeria jasan duten pertsona guztien sufrimendua aitortzen duen memoria eraikitzea" da Udalaren asmoa. Alkatea senitartekoekin elkartu da asmoen berri emateko.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-10-28

Eskubide zibil eta politikoaren aldeko kaiera heldu zen

Eskubide zibil eta politikoaren inguruko herritarren atxikimendua jasotzeko asmoz, 18/98+... taldearen Kaiera Debagoienara heldu zen. Koaderno handi bat ibili zen, hilabetez, herririk herri. 18/98 sumarioaren aurka zeudenak batu ziren ekimenera herrietako plazetan jarritako kaiera handian berbak idatzi eta sinatzera; esaterako, Patxi Basauri, Jose Luis Elkoro eta Victoriano Gallastegi, Elgeta eta Bergarako alkate ohiak.



Herriko historian non sakondu badagoelako

Arrasate Zientzia Elkartekok zazpigarrenez antolatu dute Arrasateko Iragana Astintzen izeneko hitzaldi zikloa. Aurtengo gaien artean daude zilargintza, auzo ondasunen galtzea eta itsas ekonomian Arrasateko meatzaritzak izandako eragina

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kanpatorpean egindako indusketa emankorren ostean, Arrasate Zientzia Elkartekoei ez zaizkie herriaren historian sakontzeko gogoak agortu, eta zazpigarrenez antolatu dute Arrasateko Iragana Astintzen hitzaldi zikloa.

Urtetik urtera gaiak aurkitzea zailagoa den galdetuta, zera erantzun du AZEko kide Xabier Bengoak: "Badirudi, urteek aurrera egin ahala, gaiak topatzea gero eta zailagoa dela. Hein batean, hala da, baina Arrasate bezalako herri batean beti dago zerbait interesgarria. Beti dago nondik tiratu".



AZEko kideak aurtengo hitzaldi zikloko kartelarekin. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Askotariko gaiak

Aurten ere, lau hitzaldi egingo dituzte, eta horietako lehenean zilargintzaren gaia hartuko dute ipar. "Arrasatek eta Hego Amerikak lotura estua izan dute, eta hona heltzen zen zilarraren zati bat handi bat bertatik etortzen zen. Metal preziatu horren eta Arrasateren arteko erlazioari buruz jardungo du Ignacio Miguelizek".

Bigarren eta laugarren hitzaldiak lotuta daudela azaldu du Bengoak. "1750 eta 1850 urte bitartean, hainbat auzo ondasun galdu zituzten arrasatearrek, garaiko gerren eraginez, eta, hain zuzen ere, horri buruz jardungo du Iosu Narbartek. Baina azken hitzaldiak ere badu horrekin zerikusia, ondasun horiek galtzearen eraginekin lotuta dagoelako".

Argazkiak Erdiko kalean

AZEko kideek akordioa lortu dute Erdiko kalean hutsik dagoen Oskarbi denda zenaren jabearekin. Hala, Arrasateko sei argazki historiko jarriko dituzte bertan, eta, bi astean behin, aldatuz joango dira.

Iragana Astintzen: VII. aldia

Hau da aurtengo zikloaren egitaraua. Guztiak 19:00etan izango dira, Kulturateko areto nagusian.

Azaroak 7

- **Ignacio Migueliz** *Zilargintzaren artea Arrasaten.*

Azaroak 13

- **Iosu Narbarte** *Auzo-ondasunen galera Arrasate inguruan, 1750 eta 1850. urte bitartean.*

Azaroak 20

- **Xabier Alberdi** *Arrasate Gipuzkoako itsas-ekonomian.*

Azaroak 27

- **Maixol Iparragirre eta Ioseba Garitaonandia** *Malben irakaspenak.*



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA

www.sanfeliapostol.com
funerariasanfeli@gmail.com

Gipuzkoa etorbidea 33 behea
Tel.: 943 79 16 82 • 943 77 30 22
20500 Arrasate



SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:
Golan, eskumetik, eskumara:
Iciar Solgoistika (Bokala),
Angel Maria Aguiriano (Dinuzina),
Waki Barrotiabengoa (Lehendakariordea),
Marixe Pie De Hierro (Lehendakaria),
Izaskun Guoceta (Bokala),
Eneba Dolera (Bokala).

Behar, ezkerretik hasita:
Juan Ignacio Egidazu (Bokala),
Dunin Usandizaga (Bokala),
Aintrañe Altuna (Bokala),
Eneko Urzabai (idazkaria)

1. ERAKUNDEA SAN FELIPE ELKARTEA etekinak lortzeko azarrik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzza eta Lan Departamenduko Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan izena emanda duen elkarte bat da, **1.896ko** apirilaren 13an sortu zen eta 12.547 bazkide ditu.

2. ESKAINITAKO PRESTAZIOAK

San Felipe elkarteak hildako bazkideari honako gastu hauekin lagunduko dio:

- **Espaniako Estatu barnean** egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizirik zen edo errotatua zegoen herriara eramatea.
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskolak jartzea.
- Hildakoen jante lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuzko ziurtagiria.
- 750 euroko diru laguntza, hildako bakoitzagatik.

3. SARRERAKO KUJOTAK

40 urtera arte samara doan		56 etik 60 urterarte.....	1.000€
41 etik 45 urterarte.....	300€	61 etik 65 urterarte.....	1.300€
46 etik 50 urterarte.....	500€	66 etik 70 urterarte.....	1.600€
51 etik 55 urterarte.....	750€	70 urtetik gorakoak.....	2.250€

4. URTEKO KUJOTAK

	2018	2019	2020
Titulamak:	50,00€	55,00€	60,00€
Ezkontideak:	50,00€	55,00€	60,00€
Onuradunak:	25,00€	27,50€	30,00€

INFORMATU ETA EGIN BAZKIDE

"Baleikeko primarioetara aurkeztea erabaki dut"

IGOR URIZAR BALEIKE TALDEKO ZINEGOTZIA ARRASATEKO UDALBATZAN
Agintaldi hau lehen esperientzia politikoa izaten da ari da –berarentzat, eta baita bere alderdi politikoarentzat–, eta pozik dago Baleike taldeak egin dituen lorpenekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agintaldi amaiera gertu dago, eta Goiena telebistako *Harira* saioan izan da Urizar.

Agintaldiaren hirugarren urtean gaude. Zer-nolako balorazioa egin du Baleikek?

Gure militanteen artean badaude politikan edo arlo sindikalean esperientzia dutenak, baina egia da gehienok berriak garela mundu honetan. Hiru urte hauetan, fase ezberdinak bizi izan ditugu. Instituzio publiko batean sartzerakoan, nire ustez, positiboa da kaletik datorren jende berria izatea, batez ere, instituzio barruan har ditzakezun bizio batzuk sailheste aldera. Baina esperientzia faltak ere inozentzia ematen dizu, eta, adibidez, ikasi dugu instituzio barruan bide asko oso itxiak direla, eta horrek frustrazioa eta nekea eragiten du. Baina temati jardun dugu, eta Arrasaterentzako lorpenak ere eskuratu ditugula uste dut.

Horietako bat izan daiteke aurrekontu parte hartzaileena?

Gure hasierako proposamenak handinahi gehiago zuen; bai parte hartze arloan, eta baita ekonomikoan ere. Baina lehen harria jartzea lortu dugu, eta lehen aurrekontu parte hartzaileak lortu ditugu arrasatearren zat. 350 proposamen inguru jaso dira, jendeak ondo erantzun du, eta onartutako proiektuak interes orokorrekoak dira.

Babesa lortu duen zuen beste proposamen bat parekidetasunarekin lotuta dago. Hain zuzen, Udaleko osoko bilkurako ikurrenarekin...

Laugarren gizonezko baten erretratua jartzeko proposamena jaso genuen duela gutxi, eta aukera bat ikusi genuen ikurren parekidetasunaren gaia mahai gainean jartzeko. Gainontzeko alderdiekin harremanetan jarri ginen, eta pozitu egin ginen, gauzak aldatzeko borondatea ikusi genuelako. Babes zabala jaso zuen azken osoko bilkuran, eta,



Igor Urizar, Goiena telebistako platoon. JAGOBA DOMINGO

"ZINTZOEGIAK IZAN GARA UDAL GOBERNU HONEKIN, EZ DIGUTE FUNDAMENTUZKO EZER ONARTU"

gainera, ekintza eremua herri osora zabaldu zen. Beharra badago, herrian hiru kalek dutelako emakume baten izena, eta horietatik bi santuak dira.

Nola baloratzen duzu EAJK eta PSE-EEK osatutako gobernuaren lana?

Gure ustez, oso gobernu propagandistikoa izan da, estetika lehenetsi duelako etikaren eta politikaren ginetik. Oso garrantzitsuak diren gaiak ez dituzte ukitu ere egin, eta horren adibide da gaur egun herrian dagoen langabeziaren eta prekaritatearen arazoa. Herria desindustrializazio prozesu baten dago: Fagor Industrial, Ede-sa... Enplegu Sailetik programak jartzen dituzte martxan, baina duela lau urte zeuden programa berak dira. Guk bi proposamen egin ditugu: prekaritatearen bulegoa zabaltzea, horrekin lotutako salaketak errazago egi-

teko, eta emakumeen enplegua sustatzeko plan berezi bat, euren tasa gizonezkoena baino %5 handiagoa delako. Hala ere, Udal Gobernuak gure proposamenak blokeatu egin ditu.

Azken osoko bilkuran, agerian geratu zen oposizioaren eta Udal Gobernuaren arteko harremana ez dagoela bere onenean...

Gure aldetik, zintzoegiak izan gara Udal Gobernu honekin, eta pazientzia handiegia izan dugu. Agintaldi honetako aurrekontuen eta ordenantza fiskalen etzabaidetan, negoziatzeko borondatea azaldu digute, baina, gero, ez digute fundamentuzko ezer onartu. Eta lanketa horiek bertan behera uzteak frustrazioa eragiten du. Horregatik, argi ikusi genuen zerbait egin behar genuela, eta ordenantzak ez botatzea erabaki genuen.

Igor Urizar izango da Baleikeraren hautagaia alkatetzarako?

Baleikeko primarioetara aurkeztea erabaki dut, gero, denon artean proiektua defendatuko dituztenak botatzeko.

Irabazirekin batera joango zarete? Estatu mailan badago Ezker Anitzarekin akordio bat, eta hori errepikatzen saiatuko gara.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Tribuaren etorkizune

Gogora etorri jat Roberto, gure aspaldiko ikasle bat, munduan zihar ibilli eta gero Dinamarkako neska batez Arrasatera etorri zanekue. Neskie umie egitteko zan eta bertan bizimodu ataraten saiatu zien; orduentxe, baiña, diru laguntzak ez zien gaur egun dienak eta hanka egin bihar izan euen neskaren jaioterrire.

Dinamarkan karrera bana ikasten euzen bittartien xemeikoik gastau barik Unibertsitateko campusien etxe bat eta umiendako umezaintza zerbitzua eskaini eutsien. Ikasketak amaittu aurretik, gaiñera, beste ume bat gehixau ekarri euen mundura.

Hogeita bost urte beranduau, gauzak ez die asko aldatu geurien. Tribuaren etorkizune kimu gaztietan dau, arbola gazte barik ez dau ez basorik ez eta oihanik. 60ko hamarkadan jaixotako arbola zaharrak ordezkatzeko makiña bat arbola landatu edo ekarri biharko dittuau gizartea biziberritzeko.

Eusko Jaurlaritzaren politikie tabernetan otzara txikixetan jarten dien kondoiak zulaketan dittuenaren bardiñe dala esaten dau nire lagun batek txantxetan. Egixe ete?

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkarretaratzea egingo dute, Herriko Plazan, 12:00etan, pensio duinak eskatzeko.

Udalaren omenaldia Isaias Carrascori

El Diario Vasco-ren arabera, azaroaren 10ean omenaldia egingo dio Udalak, baina Udal Gobernuak ez du hori baieztatu. Gaur jakinaraziko dute gaiari buruzko erabakia.

EH Bilduk bi herri batzar egingo ditu

Lehena, astelehenean, Musakolako bizilagunekin –19:00etan Erretiratuen Etxean– eta bigarrena, asteazkenean, memoria eta bizikidetzatza gaiak jorrazteko –EH Bilgunean, 19:00etan–.

GORA ETA BEHERA



Kexak mugikorraren bidez, eraginkorrago



Whatsapp eta Telegram bidezko kexa zerbitzua txalotu du irakurle batek. "Argazki bidez arazoak hobeto ikusten dira, erantzuna jasotzen duzu, eta BAZera ez joatea erosoagoa da".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Kadete mailako Arrasate Eskubaloi nesken talde berria. JON URRUTIA

Eskubaloiarekin gozatuz, ikastea dute helburu

10 urteren buruan, berriz ere nesken taldea atera du aurten Arrasate Eskubaloi klubak. Hutsetik hasi dira 14 neska, baina, ilusioarekin eta ondo pasatzeko gogoarekin, kirol honetan pausoak ematen jarraitu nahi dute

Jokin Etxebarria ARRASATE

Ikerketa batzuen arabera, 13-14 urterekin, behin eskola kirola amaituta, kirola egiteari uzten dioten nesken kopurua gora do nabarmen. Ez da erraza, gaur egun, edade horretako neska talde bat kirola praktikatzeko ikuste, eta, are gutxiago, talde-kirola baldin bada.

Arrasate Eskubaloi klubeko familia pozik dago, aurten, 10 urteren buruan, berriz ere, nesken talde bat ateratzeko gauza izan da eta.

Dena uda garaian hasi zela azaldu du Jon Urrutiak, taldeko entrenatzaileak: "Ekain-uztail aldera ate ireki saio batzuk egiten ditugu neska-mutilek gure kirola ezagutu dezaten, baina sekula ez ditugu bereizten neskek eta mutilak, denak batera ibiltzen dira". Klubeko sorpresarako, 14 neska talde bat egiteko borondatea azaldu zuten. Esan eta egin. Gaur egun, Par-taidetzako Gipuzkoako Kadete mailan ari da lehiatzen udan

eskubaloiaren lehen pausoa eman zuten talde hau.

Fisikorik ez

Lehen pausoak ematen ari den talde batekin nolako portaera izan ez da beti erraza izaten. Ate irekietatik harago, beste hiru saio berezi izan zituzten neskokin, benetan eskubaloiari aritu nahi izango zuten jakiteko.

Gerora, zuzendaritzak Jon Urrutiari eskatu zion taldea zuzentzeko ardura har zezan. "Nik esperientzia baneukan neskek, orain dela 10 urteko taldea ere nik entrenatu nuelako. Orain, garai hartan jokalariziren bi neska laguntzen didate, Nerea Hernandezek eta Ene-riz Urrutiak". Garaiak ere al-

**UDA ALDEAN
ESKUBALOIKOEK
EGITEN DITUZTEN ATE
IREKIETAN SORTU ZEN
NESKEN TALDEA**

datu egin dira. "Orain, sare sozialei eta argazkietan ondo ateratzeari garrantzi handiagoa ematen zaie". Baina orduko esperientziatik ere ikasi du Jon Urrutiak: "Lehen egiten nituen akatsetatik ikasi dudalakoan nago. Orain, garbi daukat neskek dibertitu egin behar dutela, horrek jarraitzea eramango baititu, eta, fisikoa gehiegi lantzen bada, erraz erre daitezke. Eskubaloia teknika eta taktika ere bada, eta horiek ikasi behar dituzte aurrena."

Helburuak, beraiek ezarrita

Talde gehienekin 2 urteko atzerapena dutela jakinda, partidu gehienetan galtzaile irtengo direla barneratuta daukate neskek. "Niri, euren jokoan garapen bat ikustea gustatuko litzaidake eta hori da beraiek ere ezarri duten helburua, gozatuz ikastea", dio Urrutiak. Garapena, bidea bezala, pausoz pauso egiten da, eta, jakina denez, gutxika-gutxika, urrun heltzen da.

Lesioak direla eta, partidua bertan behera geratu zen

Ordizian, zortzi jokalarierabilgarrirekin bakarrik gelditu zen Kanpazar ART atsedendian

J.E. ARRASATE

Denboraldi hasiera zaila izaten ari da Kanpazar ART taldearentzat. Partidarik ezin irabazi dabil eta puntuak batzea ere zail egiten ari zaio Igor Isasik zuzentzen duen taldeari. Baina bide aldapsu honetan, momentu honetan, emaitzak ez dira gehien arduratzen dutena talde barruan, min hartutako jokalarikopurua baita benetako buruko minak ematen ari dena.

Horren erakusgarri garbiena da Ordizian pasa den asteburuan pasa zitzaiena arrasatearrei. Igor Isasik 12 jokalaribakarrik zituen erabilgarri, mailako lider eta igotzeko hautagai nagusietako bat denaren aurka jokatzeko. Zeukaten guztia eman zuten mutilek, eta entsegu batekin markagailua itxuratzen saiatu ziren, ordurako jada 11 jokalarirekin zirela zelaian. Atsedendira heldu zirenerako, baina, beste hiru jokalarik hartu zuten min, eta epaileak, egoera ikusita eta araudiari jarraituz, partidua bertan behera uztea erabaki zuen, 31-5 emaitzarekin.

Zorionez, azaroaren 18ra arte atsedena izango dute arrasatearrek eta denbora tarte hau ondo etorriko zaio taldeari, min hartutako jokalariek berriz prest izateko.



ARTkoak lehian. ARTXIBOA

"Herensugearen arima kantaz, etxera buelta bat egiten dut"

ALBERTO URRETZO

TRONBOI JOLEA
'Soinuaren bidaia II' diskoa kaleratu du

J.E. ARRASATE

Alberto Urretxok plazaratu berri duen diskoa 2015eko proiektuaren jarraipena da, baina jatorrirra, hastapenera, itzuli bat eginez. Zapatuan egingo du lanaren aurkezpen publikoa, Bilbon.

Soinuaren bidaia II aurkeztu duzu. Zer aurkituko du entzuleak bertan? Lehenengo diskoaren jarraipena da. Etapan honetan, niretzat, gauza aipagarrienetako bat Eduardo Morenoren *Herensugearen arima* pieza da. Arrasateko kondairan oinarritua dago, eta, harekin, nolabaiteko etxera buelta bat egiten dut.

Ez du inporta poliki bazoaz, beti ere gelditzen ez zaren artean.

Hori da disko honetarako hartu dugun leloa.

Eta bidaia magiko honetan, zernolako garrantzia dauka Jose Ramon Vitoriak?

Dena. Gaur egun musikari bainaiz, hari esker da. Lagun handia da eta etorkizunean badaukagu proiektu bat elkarrekin egiteko. Ea noiz ateratzen dugun denbora proiektua gauzatzeko. **Proiektua aurrera ateratzeko, crowdfunding-a jarri duzue martxan.**

Bai; igandera arte edukiko dugu zabalik, <http://vkm.is/soinuarenbidaiaili> helbidean. Oso ondo joan da, baina laguntza oro da ondoetorria.



Alberto Urretxo, tronboia jotzen. ARTXIBOA

Ordenantza fiskaletan aldaketak onartu dituzte

Aho batez onartu zituzten, eguenean egindako osoko bilkuran. Ordenantzen gaiarekin batera, musika etxearena eta EAJk aurkeztutako bi mozio ere baziren gai zerrendan; Julian Untzuetaren seme kuttun izendapenarekin lotutakoak eragin zuen eztabaida

Julen Iriondo ARAMAIO

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordenantzari dagokionez, Aldundiak higiezinaren balio katastralak eguneratu behar dituela eta –apur bat igoko dira, oro har–, ordenantzan ere aldaketa izango da, eta hiri ondasun higiezinaren karga tasa 0,50etik 0,48ra jaitsiko da; jaitsiera txikia, "zerga honekin orain arte jasotakoa baino gutxiago jasotzea" arazo izan daitekeelako Udalarrentzat, alkatearen arabera.

Horrez gain, hiri ondasun higiezinaren karga tasan %60ko hobaria izango dute nekazaritza eta abeltzaintza ustiategi profesionalizatuak, titularrek zenbait baldintza betez gero; adibidez, diru-sarreraren %70 baino gehiago bide horretatik lortzea. Lierni Altunaren hitzetan, lehen sektorearen aktibitatea Aramaion "ezinbestekoa" delako da hobari hori. Foru Aldundiak ezarritako balio katastral berriei eta zergaren aldaketei alegazioak jartzeko aukera egongo da; bigarrenaren kasuan, abenduaren 14ra arte –onartutako beste ordenantzei bezala–.

Landa-bideetan eta auzo-bideetan ibilgailu astunen erabileraren eta landa-bideen zabaltearen gaineko ordenantzari dagokionez, 2019rako, ordenantza berak agintzen duen bezala, bertan erregulatzen diren prezioei KPIa igotzea onartu zuen udalbatzak. Puntu honetan, landa-bideen erabilerarekin neguan sortzen diren arazoaren gaia atera zen osoko bilkuran –bideak erraz hondatzen direlako–, baina gaia batzordean lantzekotan geratu ziren.

Azkenik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzari salbuespen bat gehitu diote: "Irizpide orokor bezala, lur sailak mantendu edo konpontzeko egin beharreko eraikuntza lanak –hirigintza batzordean kasuan



Aramaioko herriguneko eraikin multzoa. J.I.

ORDENANTZEI ALEGAZIOAK AURKEZTEKO AUKERA ABENDUAREN 14RA ARTE EGONGO DA

kasu gaia aztertu eta hark erabakiko du salbuespena aplikatu edo ez–". Alkatearen arabera, salbuespen hau da lurak zaintzea bultzatzeko, kontrakoak inguruko bide eta zerbitzuei kaltea eragiten dielako.

Beste gaiak

Gainerako gaiak dagokionez, Foru Planeko baliabideekin egingo den azpiegitura ere izan zuten hizpide osoko bilkuran; musika etxea egingo dute eliza ondoko eraikin batean. Espazioa nola banatuta egongo den zehaztu gabe eduki arren, proiektuaren berri Aldundiari emateko epea gainean zela-eta, egitasmoa tokiak ematen dituen gehieneko aukerarekin aurkeztea erabaki zuen osoko bilkurak, distribuzioa arintzea ez delako arazo gero –aurrekontua ere jaitsi egingo litzatekeelako; arazo aurrekon-

tua igotzea litzateke–. Honekin lotuta, EAJk proposatu zuen egingo den azpiegitura erabilera askotarakoa moduan pentsatzea, musika eskola baten ohiko ordutegietatik kanpo ere erabili ahal izateko. Ondo ikusi zuen EH Bilduk.

EAJk aurkeztutako mozioei dagokionez, aurrenekoan proposatzen zen Aramaio sartzearabara eratzekoan diren uren partzuergoan; Arabakoan edo Gipuzkoakoan sartu, egokiago zer den aztertzeotan geratu ziren bi alderdiak, eta EAJk erretiratu egin zuen mozioa.

Beste mozioari dagokionez, EAJk salatu zuen duela urtebete herriko seme kuttun izendatutako Julian Untzuetaren aipamenik ez dela izan orain arte Udalaren webgunean dagokion atalean; hori konpontzea eta Untzuetari barkamena eskatzearekin batera barkamen eske hori webgunean argitaratzea eskatzen zuen EAJk. EH Bilduk onartu egin zuen akatsa, baina itsusi iritzi zion EAJk hedabide batera eta moziara jo izanari bere kexa agertzeko; euren zuzenean jakinaraztearekin konpon zitekeela esan zuten. Ez zen mozioa onartu.

Peru Abarrategi, Aitor Ugarte eta Paula Amilburu, sailkatuta

Bere saioa irabazita sailkatu da Peru Abarrategi Arabako Bertsolari Txapelketarako. Lortutako puntuei esker sailkatu dira, berriz, Aitor Ugarte eta Paula Amilburu ere –Martin Abarrategi, ez–. Andere Arriolabengoak bere saioa irabazi zuen aurreko astean, eta Xabi Igoa eta Manex Agirre sailkatuta zeuden, aurreko txapelketatik.

Etxeko bikote bakarra sailkatu da asteburuan pilota finalerako

San Martin pilota txapelketaren asteburuko finalerdietan, Mikel Sanzek eta Markel Arriolabengoak lortu dute txartela, Adurtzako Ugalde eta Leonardori irabazita, kadete B mailan. Alebin A mailan Julen Fernandez eta Aitor Luzuriagak eta infantil B mailan Aner de la Torrek eta Ander Gonzalezek galdu egin zituzten euren partiduak.



ARAMAIOKO UDALA

Aramaioar zaharrenak

Joan den zapatuan ospatu zen herrian Jubilatuen Eguna. Eguraldiak erabat lagundu ez zuen arren, giro ederra izan zen. Egunaren aurretik, Udalaren oroigarria jaso zuten Aramaio gaur egun dituen emakumezko eta gizonezko bizilagun zaharrenek, Edurne Etxebarriak –99 urte– eta Pablo Gardokik –96 urte–.



NIRE USTEZ

ANDONI ELEJALDE

Bada garaia...

Irakurleok: badakizue oso berritsua naizena eta, jakina, jendea ezagutu dut, leku askotakoa. Ez da leku kontua, ezta belaualdi kontua ere. Nola da posible, oraindik ere, hainbeste jende egotea Ama Lurrarekiko kontzientzia gutxiarekin?

Kontsumismoa, arlo guztietan gehiegikeriak, egunero. Ez ditut pasotismoa, harrokeria, kontzientzia falta edo horrelakoak ulertzen. Ardura eta kontzientzia eskatzen duten ekintzek norberaren gainetik egon beharko lukete.

Kotxea beharrezkoa dena baino gehiago erabili; zaborrak lurrera zein errekarra bota edota ez birziklatu; dutxan zein harrikoa egitean, ur-bero jarria topera dagoela joaten utzi; horiek dira adibide garbi batzuk. Modu asko daude Ama Lurra babesteko, eta bitartean norbere poltsikoa eta osasuna ere bai. Benetan! Etxerako adibide bi: Calgonit pastilla erdia erabili; hagineta pasta *bukatzean* artaziaz ebaki. Erabilera murrizteak itsasora isurtzen diren mikroplastikoak ere murrizten ditu, baita hauek produzitzeak dakartzan CO2 emisioak ere. Hau ere gure esku dago.

"Urtaro bat irudikatu dut alde bakoitzean"

IZARO SANCHEZ ILUSTRATZAILEA ETA MURALISTA

Gu Haziak Gara elkarteak antolatutako bozeto lehiaketa irabazi du, eta haren irudiekin margotuko dituzte Kurtzebarri eskolaren eraikinaren lau aldeak

Mirari Altube ARETXABALETA

Ilustratzailea da, baina muralak egiten ere eskarmentu handia du. Hain zuzen ere, Gu Haziak Garako kideekin elkarlanean jardun du herrian egin diren hainbat muraletan.

Pozik lehiaketa irabazi izanarekin?

Bai, oso pozik. Batetik, eskolako kideek eta herritarrek emandako botoekin aukeratua izan delako; pentsa zer den umeen artean entzutea nirea zela politena... Eta bestetik, eskolako eraikinean geratuko delako irudikatuta nire sorkuntza.

Lau alde ditu eraikinak eta lauretarako asmatu dituzu marrazkiak...

Bai. Derrigorrez agertu beharrekoak ziren Kurtzebarri mendia, animaliak eta kolore berdea. Nik alde bakoitzean urtaro bat irudikatu dut: mendia elurrarekin, udazkena laranja koloreekin eta beste biak berdeak, animaliek eta landareek lagun eginda. Jendearen gustuko horregatik guztiagatik izan dela esango nuke. **Eskarmentu handia duzu muralak marrazten; samurra izan da?**

Neure orduak behar izan ditut hori sortzeko, ez pentsa. Lan txukuna egiteko, derrigor eskaini behar zaio denbora, buruari eragin eta sormena landu.

Gu Haziak Garako kideekin hainbat lan egin dituzu; gustura?

Oso gustura. Ekimen oso politak egin izan dituzte; aurreko muralak margotzeko, esaterako, herritarren partaidetza sustatu dute, eta, besteak beste, umeekin eta Basotxoko erretiratuekin jardun izan dugu lanean.

Oraingoan ere herritarrekin margotzea da asmoa?

Bai; eraikinaren beheko partea umeek margo dezaten utziko dugu eta bestea, gainerakook. Hori bai, oraingoan, gutxieneko konpromiso bat eskatuko dugu; hau da, datorrena etor dadila ordu batzuk margotzeko asmoarekin, eta ez pintzelkada bat emateko bakarrik. Hala ere,



Izaro Sanchez aretxabaletarra. I.S.



Bozeto irabazlea, eskolaren lau aldeak erakusten dituena. IZARO SANCHEZ

Sanchezen bozetoa bozkatuena

Bost lagunek egindako zazpi muralen zirriborroak aurkeztu zituzten lehiaketara, eta adituek osatutako epaimahaiak horien artean hiru aukeratu zituen. Eskolako kideek lehenengo, eta herritarrek gero, hiru horien artean aukeratu dute Sanchezena.

anima daitezela herritarrek, ume, gazte zein nagusi, esku asko beharko ditugu eta.

Noiz hasiko zarete lanean?

Ez daukagu garbi; ez dakigu umeen alde orain margotu edo udaberrirako utzi. Batetik, egu-

raldia da kezkatzen gaituena, eta, bestetik, dirua. Beharrezko materiala erosteko diru hori nondik lortu hausnartzen gabiltza. Behin lanean hasitakoan, alde bat baino gehiago margotuko dugu, laguntza izanez gero.



Umeak, mozorroak jantzita, astelehenean, mojen komentuan. M.A.

Gau Baltza ospatzeko gertu daude umeak zein helduak

Gozoki-eskerako hainbat arau jarri dituzte aurten, eta horiek errespetatzeko eskatu dute antolatzaileek

M.A. ARETXABALETA

Urriaren 31 iritsi da, eta, horrekin batera, Gau Baltza. Neska-mutikoez gertu dituzte mozorroak; izan ere, astelehenean jardun zuten horiek prestatzeko lanetan. Atzo, ostera, film laburrak ikusi zituzten, giroz hasteko, eta gaur, ospakizunean barneratuko dira, Gau Baltza batzordeak horretarako antolatutako egitararekin.

Eskea, kalejira eta ekitaldia

Gozoki-eskearekin (18:00-19:00) hasiko dute ospakizuna umeek. Antolatzaileek hainbat arau ja-

rri dituzte horretarako: *Gau Baltza* kartela duten denda eta tabernetan bakarrik eskatzea, barrura sartu barik; hala, kanpoan elkartu eta koplak abestuko dituzte –eta ez "truco o trato" esan-. Era berean, gogorazi dute lanean dabilzan dendariei eta tabernariei, errespetuz eskatzeko eta eskertzeko.

Txistulariek lagun eginda kalejira egingo dute gero (19:15), Mitarte kalean hasi eta Herriko Plazaraino. Hara iritsitakoan, umeek zein helduek gozatuko duten ekitaldi nagusiari ekingo diote (19:30).



COPRECI

Ekudortik Copreci ezagutzera

Ekudorko lehendakariorde Maria Alejandra Vicuña eta hango gobernuoko hainbat ordezkari izan dira Mondragon Korporazioan eta Coprecin egunotan. Ekonomia solidarioa bultzatu nahian dabil Ekudorko gobernuak, eta alor horretan esperientzia duten erakundeak ezagutzen dihardute. Elkarlanerako eta kooperaziorako gertu agertu zen Vicuña, hemengo ordezkarien esanetan.

EUSKARALDIA

Euskaraldia, herritarren babesa jaso eta jaso

Ikasleek, udal langileek eta herriko merkatariak ere bat egin dute azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo den ariketa kolektiboarekin; hala ere, oraindik asko geratzen dira izena emateko, eta horiek animatu gura dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Gero eta atxikimendu gehiago jasotzen dabil Aretxabaletan ere Euskaraldia. Udal langileak, Kurtzebarri institutuko ikasleak eta merkatariak dira horrekin bat egin duten azken taldeak. Horiek ez ezik, hango eta hemengo enpresak ere badabiltza lanean. Hortaz, Euskaraldiak dagoeneko herriko txoko asko zipriztindu ditu.

'Belarriprest' gutxi

Orain arte izena emandako kopuruak aztertu dituzte Euskaraldiaren bueltan lanean dihar-

duen batzordeko kideek, eta konturatu dira *ahobizi* kopurua askoz handiagoa dela: "*Ahobizi* izan gura dutenak ia 500 dira eta *belarriprest*-ak ez dira iristen 70era. *Belarriprest*-ak oso garrantzitsuak dira, eta horiek animatu gura ditugu izena ematera. Zeintzuk diren horiek? Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenak edo ohiturarik ez baina ulertzeko inolako arazorik ez dutenak".

Izen-ematea zabalik da oraindik

Babesa eman diotenen kopurua bide onetik badoa ere, oraindik

asko dira izena eman ez dutenak. Horregatik, eta azaroan sartzear, animatzeko eskatu dute: "Ekinenean parte hartu nahi dutenek *Euskaraldia.eus* webgunean egin dezakete, edo izen-emate orria beteta, ondorengo leku hauetan utzi: udaletxean, kiroldegian, Arkupen, euskaltegian eta Loramendi elkarteetan".

Paparrean jartzeko txapak hilaren 6tik aurrera jaso ahal izango dira, Loramendin. Eta azaro erdialdean herritarrei bideratutako trebakuntza saioa egingo dela iragarri dute antolatzaileek.




Udal langileak Euskaraldiarekin bat eginda. UDAL LANGILEAK



Kurtzebarri institutuko ikasleak Euskaraldiari babesa adierazten. KURTZEBARRI




Herriko hainbat merkatari Euskaraldiari ekiteko gertu. MIRARI ALTUBE




AMAIA ELORTZA
MERKATARIA

"Geure hizkuntza da eta denok egin beharko dugu ahalegintxo bat aurrera egin dezan. *Ahobizi* izanda emango diot nik nire bultzadaxoa".



MIRIAM MANTECA
MASAJISTA

"Euskal Herrian bizi bagara, euskaraz egin behar dugu; garrantzitsua da. Nik ere egin nahi dut, baina ez naiz guztiz gai; horregatik, *belarriprest* naiz".



NERIAN PEREZ
TABERNARIA

"Euskara bultzatzeko asmoarekin animatu naiz, gure hizkuntza gal ez dadin eta aurrera egin dezan. *Ahobizi* izango naiz".

'Oreina' filmarekin itzuliko da zinema Arkupera azaroan

Koldo Almandozek zuzendutako euskal filmaren bost emanaldi izango dira bihartik astelehenera bitartean

M.A. ARETXABALETA

Azaroarekin batera zinema itzuliko da Arkupe kultura etxeko Zaria aretoa. Euskal lan batekin itzuli ere, Koldo Almandoz zuzendari donostiarraren *Oreina* filmarekin (2018; 85 minutu;

12 urtetik gorakoak), hain zuzen ere. Donostia Zinemaldian Irizar saria eskuratu zuen filmaren bost emanaldi eskainiko dituzte: azaroaren 1ean (19:30), 2an eta 3an (22:00), 4an (19:30) eta 5ean (16:00).

Umeek, oster, *Hotel Transilvania 3* marrazki bizidunen filma (Ameriketako Estatu Batuak; 2018; 97 minutu) izango dute azaroaren 3an eta 4an (17:00).

Hurrengo egunean, hilaren 8an, zineklubaren tarteari hasiera emango diote (19:30). *El Rehen* filma hautatu dute lehenengo emanaldirako, eta Libanoko gerra zibilaren atariko kontuak jaso ditu Brad Andersonek (AEB; 2018; 109 minutu).

Hurrengo aste bukaeran, oster, Dani de la Torre galziarrak

zuzendutako *La Sombra de la ley* filma izango da, helduendako (Espainia; 2018; 126 minutu): hilaren 9an eta 10ean (22:00), 11n (19:30) eta 12an (16:00).

Jaikiren gaineko erakusketa

Erakusketa aretoa, oster, Jaiki elkartearen gaineko kontuekin beteko da: *Jaiki elkarte: 15 urte mugimenduan*. Argazkiekin osatutako erakusketa hori azaroaren 9an irekiko dute eta hilabete osoan izango da zabalik herritarrendako.

Errigoraren otarreak eskatzeko epea zabalik dago

Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka leloarekin, bosgarrenez dator Errigoraren udazkeneko kanpaina, eta Loramendi elkarteak babesa erakutsi dio ekimenari: "Nafarroa hegoaldeko euskalgintzak uzta jasotzen jarrai dezan". Azaroaren 14a arte dago zabalik otarreak eskatzeko epea, *Errigora.eus* webgunean eta Loramendin.



Eskoriatzako II. Pintxo Lehiaketako partaide eta epaimahaikideak, iaz, udal ordezkariekin. TOKI ALAI TABERNA

Ostalariek prest daude Pintxo Lehiaketarako

Azaroaren 16tik 18ra bitartean, biak barne, izango da herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko Pintxo Lehiaketa. Aurten, hirugarren edizioa izango da, eta Eskoriatzako edozein taberna parte hartu ahal izango du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak hirugarren Pintxo Lehiaketa antolatu du azaroaren 16tik 18ra, biak barne. Lehiaketak, aurreko edizioetan moduan, herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko helburua izango du, eta, hain zuzen, parte hartzeko dei egin dute udal ordezkariak.

Pintxo Lehiaketan parte hartu nahi dutenek baldintza eta oinarri batzuk bete beharko dituzte, eta horiek ikusgai daude dagoeneko *Eskoriatza.eus* webgunean. Lehiaketa azaroaren 16an 18:00etan hasiko da, eta azaroaren 18an 14:00etan amaitu. Herriko ostalaritza eta merkataritza sustatzea da helburua; Eskoriatzan ekoiztutako produktu bat, gutxienez, erabiltzea derrigorrezkoa izango da, eta produktuen jatorria publiko egingo da. Horrez gain, gainontzeko osagaien %50 edo gehiago Eskoriatzako dendetan erosita-koak izatea baloratuko du epaimahaia.

Taberna parte hartzaile bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara, eta parte hartzaile bakoitzak pintxoaren izena, osagaiak eta argazkia eraman beharko ditu Ibarraundi museora, edo posta elektronikoz hara bidali. Gaur da horretarako azken eguna.

Lehiaketara begirakoak

Pintxo bakoitzak 1,80 euro balioko du eta azaroaren 16etik 18ra arte eskuragarri egon beharko dute –biak barne–, ondorengo ordutegian: 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:30era. Herritarrek pintxoak dastatu ondoren, tabernariak zigilu bat jarri beharko dio triptikoan, bere tabernari dagokion lekuan,

**SARI BANAKETA
AZAROAREN 18AN
IZANGO DA, FERNANDO
ESKORIATZA PLAZAN,
14:00ETAN**

eta herritarren botoak balio izateko, gutxienez, hiru pintxo ezberdin dastatu beharko ditu. Triptikoko boto-papera bete ondoren, tabernetan egongo diren kutxetan botoa uzteko aukera izango da, zapatara arte. Sari banaketa, berriz, azaroaren 18an egingo dute, plazan, 14:00etan. Irabazlea aukeratzeko botoak epaimahaia eta herritarrek emango dituzte, eta domekako 13:30ak arte izango dute bozkatzeko aukera.

Saria bakarra izango da, 300 euro eta trofeoa, eta, pintxo onena aukeratzeko, aurkezpena, zaporea, originaltasuna eta erabilitako produktuak herrian erosita-koak izatea hartuko dituzte aintzat.

Parte-hartzea handitu guran

Iaz, lau ostalarik hartu zuten parte Pintxo Lehiaketan. Hori horrela, hirugarren edizioari begira, parte-hartzea handitu gura du Eskoriatzako Udalak, denei parte hartzeko eskatuta.



Mikel Uribeberria, Joserra Zubizarreta eta Aintzane Oiarbide, udaletxe aurrean. I.B

Lete auzorako errepidea konpontzeko lanak, lizitaziora

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,3 milioi euro kostatu diren lanak egin ditu GI-627 errepidean, Eskoriatzan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren diputatua eta Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea martitzenean batu ziren, azken hilabeteetan herrian egin diren eta egingo dituzten lanen gainean hitz egiteko. Besteak beste, Lete eta kanposantura bidean dauden lanak lizitaziora aterata, laster hasi eta lanak otsailerako amaituta egotea aurreikusten dute.

Otsailerako amaituta

Neguko euriteen eraginez Bolibar erreka kanalizatzen duen hodia apirilean puskatu ondoren, emergentziako jardunaldia egin zuten GI-627 errepidea berriz zirkulaziora zabaltzeko. Bi hilabete iraun zuten obrek, eta 800.000 euro inguruko kostua izan zuten. Dena den, puskatutako hodiak Lete auzora eta hilerria doan bidea ere moztu zuten, eta, Eraña auzotik pasabidea dagoen arren, laster hasiko dituzte lanak. Horrekin batera, eremu horretan, argiztapena jarriko dute. Lete auzorako lanek 150.000 euroko kostua izango dute. "Emergentziako lanak eginda daude, baina, orain, gainontzeko parte egitea falta da, aurki hasiko da", adierazi zuten Aintzane Oiarbidek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren diputatuak.

Domu Santu egunera begira, kanposantura oinez joateko eskaera egin zuten Joserra Zubizarreta alkateak. "Domu Santu

egunera begira, hilerrietara joateko ohitura dago, eta Olazarren gora hesia jarri dugu oinezkoentzat pasabidea errazteko".

Lanak bidegorrian

Neguko eta udaberriko euriteek kalte gehiago eragin zituzten Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorrian. Izan ere, lurjausia izan zen martxoaren 27an, eta bidegorria erabat itxi zuten. Han ere emergentziako lanak egin zituzten, baina, orain, bigarren jardun bat egingo da, ezpona guztia egonkortu eta sare eta buloiz josteko. "Eskoriatzako zubitik ortuetarainoko zati guztian egingo dituzte lanak. Jardunek 500.000 euroko aurrekontua dute eta maiatzerako amaitzea aurreikusten dute", adierazi zuten Aintzane Oiarbidek.

Fagor Ederlan pareko lanak

Horrekin batera, Aldundiak egingo duen oinezkoentzako proiektua aurkeztu zuten. "Torrebaso industrialdeko, Arizmendi Ikastolako eta Fagor Ederlan enpresako ikasleek eta langileek garraio publikoa erabiltzeko aukera izan dezaten, noranzko bakoitzean autobus geltoki bat egingo da, eta, zirkulazioa baretzeko eta segurtasuna bermatzeko, uhartetxoak eta semaforoa jarriko dira", adierazi zuten Oiarbidek.

Jardun horrek 158.000 euroko aurrekontua eta zortzi asteko epea izango du. Obra adjudikazio fasean dago, eta urte bukarrerako bukatuta izatea aurreikusten da.

EUSKARALDIA



Kultura etxean egindako aholku-sorten lehen saioan batu zirenak. IMANOL BELOKI

Herritarrengana heltzeko informazio saioak

Orain arte egindako aholku-sorten saioen arrakasta ikusita, informazio saio ugari antolatu dituzte Euskaraldia Eskoriatzako batzordekideek. Profil askotariko jendea batu, zalantzak argitu eta egitasmoa hasten denerako prest egoteko asmoz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urriaren 22an eta 24an egin ziren aholku-sorta saioak Eskoriatzan. Horien helburua da Euskaraldian izena eman dutenek praktika txiki batzuk egitea, Euskaraldiko ariketa soziala nola egingo den jakiteko, eta egitasmoaren lehen egunetara iritsi aurretik beharrak landu eta ekimenera segurtasunez iristea.

Aholku-sorta saioak proba bat izan ziren, prestakuntza horrek balio ote zuen ikusteko: "Bi saioak oso desberdinak izan ziren jendearen kopuru aldetik, baina baita parte hartu zuten pertsonen profilengatik ere; beraz, probatzeko, oso interesgarriak izan ziren biak ala biak. Parte hartu zuten guztiak airtortu zuten saioa egin aurretik zekitena baino informazio hobeaz zutela, konfiantzaz parte hartuko zutela eta interesgarria iruditzen zaiela informazio hori beste hainbat herritarri ere zabaltzea", adierazi du Mari

Informazio saio ugari

Profil ezberdineko herritarrei heltzeko asmoz, informazio saio ugari egingo ditu Eskoriatzako batzordeak, hainbat egun, ordu eta lekutan. Informazio saio hauek ordubetekoak izango dira.

Euskaltegian

- **Azaroak 5** 10:00etan eta 17:30ean.

Kultura etxean

- **Azaroak 6** 18:00etan.
- **Azaroak 7** 11:00etan.
- **Azaroak 8** 19:00etan.
- **Azaroak 9** 11:00etan.
- **Azaroak 10** 11:30etan.
- **Azaroak 11** 15:00etan.
- **Azaroak 12** 18:00etan.
- **Azaroak 14** 15:30ean.

Karmen Arrietak, Euskaraldia Eskoriatzako batzordekideak.

Hori horrela, informazio saio gehiago egingo dituzte, hainbat egun, ordu eta lekutan, herritarrei aukerak desberdinak eskaintzeko. Talde bakoitzean plaza kopuru mugatua egongo da, eta izena ematea komeni da. Izena emateko azkeneko eguna saio bakoitza baino egun bi lehenago izango da. Horretarako, kultura etxera joan edo 943 71 46 88 telefonora deitu behar da.

Virginia Imazi elkarrizketa

Informazio saioez gain, Virginia Imaz antzerki zuzendari eta ipuin kontalaria elkarrizketatuko du datorren eguaztenean Dorleta Kortazarrek, Euskaraldiaren baitan. Elkarrizketa intimoa eta goxoa izatea da antolatzaileen asmoa, Virginiaren lanetik harago elkarrizketa pertsonalagoa eskainita. Hala, 19:00etan, izango da, Zaldibar antzokian, ele bitan, eta Imazen lanbidez, euskaraz, eta abarrez hitz egingo dute, 16 urtetik gorakoei zuzendutako saioan.



Gatzagako liburutegiko aurtengo irakur puntua. SAIOA URRUTIA

Josu Atxaga eta Garazi Ugarte dira lehiaketan irabazleak

Herriko liburutegiak antolatu zituen, aurtengo irakur puntuko irudia eta esaldia aukeratzeko

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako liburutegiak antolatutako irakur puntuko marrazki eta esaldi lehiaketek badituzte irabazleak. Marrazki sariduna Josu Atxagak egin da eta esaldia, berriz, Garazi Ugarterena da. Guztira, 16 lan aurkeztu dituzte gatzagarrek aurtengo irakur puntuko irudia eta esaldia aukeratzeko lehiaketara.

Pasa den astelehenean batu ziren parte hartzaile guztiak liburutegian, irabazleak zeintzuk ziren jakiteko asmoz. Saridunen izenak esanda, aurkeztutako lan

guztiak batu eta erakusketa modura jarri zituzten. Hala, Bibliotekaren Egunerako, urriaren 24rako, etxe guztietara banatu zituzten irakur puntuak, bertan; marrazkia, leloa, liburutegiko ordutegia, mailegutza arauak, eta abar batzen dira.

Irakurzaletasuna sustatu

Esaldia *Gatzako gatzak liburu goxoak dakartza* da, eta marrazkian, berriz, Gatzagako iturria oinarri, irakurritz dibertitu egin daitekeela adierazten da. Sari-dunen izenak jakinarazi arren, aurrerago jasoko dituzte sariak.

Autodefentsa feminista tailerra arrakastatsua izan da

Bigarren saioa abenduaren 1ean egingo dute, 10:00etatik 14:00etara bitartean, kultura etxean

I.B LEINTZ GATZAGA

Urriaren 27an, pasa den zapatuan, autodefentsa defentsa tailerra izan zuten Leintz Gatzagan. Antolatzaileen esanetan, saio arrakastatsua izan zen. Honela adierazi du Ainhoa Barandiaran antolatzaileak: "Bertan izan ginenok oso gustura geratu ginen saioak emandakoarekin. Plaza kopuru muga 20 pertsonakoa jarri genuen, eta, plaza guztiak bete baziren arren, guztira, 17 pertsona izan ginen bertan".

Lehenengo saioan, teoria gehiago izan zuten praktika baino,

eta garrasi ugari egin zutela adierazi du Barandiaranek: "Buru indartzeko saioa izan zen. Hala, egoera larri baten aurrean jarri, eta garrasi egiten aritu ginen ia goiz osoa. Horrez gain, beste hainbat ariketa ere egin genituen...".

Abenduaren 1ean, beste saio bat egingo dute, kultura etxean, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Hala, formakuntza amaitzeko, 10:00etatik 12:00etara teoria izango dute eta ostean, 14:00ak arte, praktika izango dute parte hartzaileek.



Zubietako auzotarrek, eskari partikular batez harago, udalbatzari eskatu zioten kalearen egoera hobetzeko konpromisoa hartzeko. J.B.

Zerga eta tasetan, KPlaren araberrako igoera orokorra

Alkatearen kalitate botoari esker onartu ziren 2019ko ordenantza fiskalek %2 inguruko igoera orokorra izango dute, eta Gobernuaren lehentasunetako bat autofinantzaketa da; oposizioak ez ditu ordenantzok begi onez ikusten, eta progresibotasun falta ikusten die

Jokin Bereziartua BERGARA

Gobernuaren proposamenari oposizioak kontra bozkatu ostean eta EAJko Maite Agirrek bilkuran egoterik izan ez zuenez -EH Bilduko Leire Iruinek ere ez zuen egoterik izan, baina Agurte Barrosori delegatu zion botoa-, Elena Lete alkatearen kalitate botoari esker onartu ziren 2019rako ordenantza fiskalak asteleheneko osoko bilkuran.

Hiru ideia nagusitan oinarritu du Gobernuak 2019an bergararrek zergetan eta tasetan ordaindu beharrekoa: igoera orokorra KPlaren araberrakoa izatea -%2 eta 2,2 arteko igoera, diotenez-, etxeko laguntza zerbitzuaren tasa berritzea eta autofinantzaketarena izatea joera nagusia. "Ildo guztietan, herrira begirako ordenantzak dira. Egoera ekonomikoa hobetzen doa eta uste dugu denon artean esfortzu bat egiteko unea dela. Horregatik planteatzen dugu KPlaren araberrako igoera orokorra", esan zuen Elena Lete

alkateak bilkuraren amaieran. Berritasunen artean, Lete etxeko zerbitzua nabarmendu zuen: "Batetik, arautegia moldatu dugu, eta, bestetik, ordenantza fiskaletan hobekuntza aipagarriak egin ditugu. Berezi, hirugarren adinekoei begirako zerbitzua da, eta mimatu beharrekoa; horregatik jaitsi dugu zerbitzuaren prezioa, Uda-

larendako zama aipagarri bat izango den arren".

"Progresibotasun falta"

EH Bilduren eta Irabaziren artean 29 emendakin partzial aurkeztu zituzten -16 EH Bilduk eta 13 Irabazik, azken honek osotasunera emendakina ere aurkezteaz gain-. "Ordenantza fiskaletan progresibotasuna [diru-sarrereren

Zubietako konpontzeko "beharra"

Zubietako kaleko auzokideen izenean, Jose Sanchez bizilagunak eskatu zuen 2016an abiatutako proiektua "osotasunean" garatzeko: "Gehieneko oso batek Zubietako kalea guztiz eraberritzeko beharra noizbait sentitu duela ikusita, jakin gura dugu ea noiz hartuko duen Udalak proiektu hori osotasunean garatzeko konpromisoa eta noizko egongo den inbertsio ekonomikoa; lehenbailehen izatea espero dugu. Artean, irisgarritasuna erabat bermatzeko espaloien itxuraldaketa premiazkoa da". Alkateak dio badakitela kalearen egoera txarra dela eta horregatik abiatu zutela partaidetza prozesu bat 2016an: "Kanpoko finantziarioa aurkitu behar dugu eta obra noiz egin ahalko den erabaki; esaterako, seminarioko parkingarekin batera ezingo da egin". EH Bildu eta Irabazi bat datoz auzokideekin eta uste dute Gobernuak ez duela gaia ondo kudeatu.

Autokritikarako gonbidapena



JOKIN BEREZIARTUA
KAZETARIA

Herritarrei zuzenean eragiten dieten zergak eta tasak izanik, ulertzekoa da ordenantza fiskalak lantzeko osoko bilkuran eztabaida politikoa egotea. Hain zuzen, udalbatza aurrean askotan egon izan garen kazetariok badakigu urteko bilkurarik luzeenetako bat izaten dela. Baina edukietan zentratzeke eta lau ordu eta erditik gora irautearen arrazoiak zeintzuk izan ziren zehazteke, asteleheneko luzeegia izan zen. Luzeegia, bertan egon ziren eta eskaerak egin gura zituzten herritarrentzat, eta baita luzeegia eraginkortasun aldetik ere. Udalbatzak badu zer aztertu, betiere, hobetzea helburu. Autokritika egitea oso ariketa sana delako.

araberrako tipoak, hots, diru gehien duenak zergetan gehien ordaintzea] txertatzeko ekarpenak egin genituen baina gehienak eta inportanteenak ez dira onartu. Zerga askotan kontrajarriak dira ikuspegiak", uste du EH Bilduko Gorka Artolak. Irabaziko Aiert Lizarralde nabarmendu du ordenantzok ez direla behar moduan lantzen, Ogasuneko batzordeburu Rafa Amasorrainekin negoziatzeko "gertukoagoa" izan dela aitortu arren: "Urte hasieratik lantzen hasi beharko lirake eta horrela lortuko litzateke subjektibitate egoera orokor batetik objektibitate egoera batera pasatzea. Progresibotasun falta handia dute zerga eta tasa hauek".

Flyscheko zikinkeria hizpide

Bestalde, Deba-Zumaia biotopiko itsaslabarrean hainbat plastikoen erakusten dituen Oier Bartolome surflariak grabatutako bideoa izan zuten hizpide, mozio bidez. Udalbatzak Aldundiari eta Jaurlaritzari eskatu zien garbiketarako brigada bat sortzeko eta plastikoen iristea sailhesteko plan bat diseinatzeko; mozioa aho batez onartu zuten.

Eskola herritarerako bi saio Sorturen eta Iratzen eskutik

Patriarkatua suntsituz Bergara feminista eraiki izeneko eskola herritarrek antolatuta dituzte. Azaroaren 7an, Jaizkibel konpainia-ko eta EH Bilduko legebiltzarkide Oihana Etxebarrieta egongo da Iratzen (18:30) eta hilaren 10ean, *Emakumea, arraza, klasea eta Zaintza eta greba feminista, txanponaren bi aldeak* saioak egingo dira goizean, Aranzadin.

Pol-Polen edizio digitala eta On Serafin Esnaolaren filmak

Miguel Angel Elkorobereziarren *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat 1942-2017* liburuen edizio digitala egileak sortutako webgunean ikusi ahalko da; On Serafin Esnaolak 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Bergaran grabatutako 32 pelikula ere ikusi ahalko dira atari berean. Azaroaren 5ean San Pedro kaleko lokalean elkartuko dira (19:00).

OHARRAK

1933an jaiotakoak

Azaroaren 11n Zumelagan bazkalduko dute (14:15). Izena emateko, 943 76 16 00 (Miren) edo 943 76 24 04 (Garbiñe).

1951n jaiotakoak

Azaroaren 10ean Irala kalean elkartu (20:00) eta Zumelagan afalduko dute: 615 70 90 02.

1957an jaiotakoak

Azaroaren 24an Mendabiarra egingo dute egun osorako irteera; 09:00etan Santa Marinar elkartuko dira. Izena eman behar da azaroaren 15a baino lehen: 3035 0189 31 1891038659 -Labora Kutxa, 80 euroko ordainketa-.

1964an jaiotakoak

Azaroaren 17an Sirimiri jatetxean afalduko dute. Izena eman daiteke azaroaren 5era arte, Oxirondoko Iku garbategian, Zerkausi dendan edo Ozaetan; 20 euro aurreratutako behar dira. Ariznoa tabernaren parean elkartuko dira, 20:00etan.

"Urtero 200 lanpostu berri sortzen ditugu"

ANDONI REKONDO GUREAK-EKO INDUSTRIAL LANGUNEAK-EKO ZUZENDARIA
Bergarako planta kableatuen mundura dago bideratuta eta egiten dituzten kableak automoziorako erabiltzen dira; Seat eta Audi markentzat, besteak beste

Maialen Regueiro BERGARA

Gureak-eko planta berria martxan da dagoeneko, eta gaur egungo jardueraz zein etorkizuneko proiektuez mintzatu da Andoni Rekondo.

Iraila ezker zabiltzate lanean Bergaran. Zer moduz joan da lantokia martxan jartzeko prozesua?

Hala da; gaur egun 121 langile daude lanean Bergaran, eta, egia esan, lekualdatzea ez da erraza izan, baina, era berean, langileen inplikazioa azpimarratuko nuke. Epe motzean lortu dugu lekualdatzea egitea, eta pozik gaude.

Zer moduz egokitu zara kargu berri honetara?

Gureak-en ez naiz berria, zeren 28 urte daramatzat eta enpresan lanean. Erronka garrantzitsua da, baina, aldi berean, ilusio handiz hartu dut kargu hau.

Nolako inbertsioa izan da Gureak-eko Bergarako planta martxan jartzea?

Planta berri hau martxan jartzea apustu garrantzitsua izan



Andoni Rekondo Arrasateko Santa Barbara parkean. JOKIN BEREZIARTUA

da Gureak-entzat. Lehengo eraikina berritzeko, 3,8 milioi euroko inbertsioa egin da; lehen faseko lanak egiteko, berriz, 2,2 milioi eurokoa. Azken batean, guztira, 6 milioi euroko inbertsioa izan da.

Pozik instalazio berriein?

Planta industrial bat sortu dugu, aurreko planta berritzeko aukera eman diguna. Hala ere, planta batean langileak bizi direla, langileek bertan lan egiten dutela eta horri garrantzia

eman diogula azpimarratuko nuke. Izan ere, deskantsurako gune berriak eta egokituak sortu ditugu, barruan zein kanpoan. Horrez gain, aipatu behar da, baita ere, formakuntzarako espazio bat sortu dugula.

Zer ekoizten duzue?

Bergarako planta kableatuen munduan mugitzen da. Gureak-ek daukan estrategia multiteknologikoa da eta horrek plastikoa, elektronikoa, muntaiak eta kableatuak menperatzea ahalbidetzen du. Egiten ditugun kableak, esate baterako, automoziora bideratuta daude eta Seat, Audi eta halako markentzat egiten dugu lan.

Taberna-jatetxe-kafetegi bat aurreikusten da. Zer duzue buruan?

Gureak industrialde batean dago kokatuta eta hor ostalaritza mailan zerbait egiteko proiektua dago. Guk egindako hitzarmena onartu egin du Udalak, eta orain, proiektu hori zertan geldituko den ikusi beharko da.

Oraingo lehen fasea izan da. Bigarren faseko plan berezi bat egitea dago aurreikusita.

Bigarren fase hori inguruan dauden tailerrei zein herriei zerbitzua emateko izango da. Bailarako tailer bat eraikitzeo aukera sortzen bada, gu prest egongo gara hori bideratzeko.

Bertan eraikita dagoena bota eta berritoki eraikitzea aurreikusten duzue?

Bigarren faseko eraikina ez dago egoera onean. Aurreikus-

ten dena da dagoen eraikina bota eta berri bat eraikitzea, baina proiektu hau 2020 eta 2021 bitartean burutzeko litzateke. Beraz, Udalarekin egin beharreko tramite guztiak bideratuta daude. Izan ere, Udalarekin dugun konpromisoa da gune horretan proiektu industrial bat sortzea.

Labegaraietako plantan zertan diharduzue?

Labegaraietan bi tailer ditugu. Muntaien plantan 150 pertsona egiten dute lan eta bestean, proiektu eta bezero berezientzat egiten da lan.

Nola egin dio aurre Gureak Taldeak krisi ekonomikoari?

Azkenengo bost urteetan, Gureak gai izan da urtero 200 postu berri sortzeko. Urtero, gainera, 10 milioi euro inguruko inbertsioa egiten dugu.

Zuen arloan erreferente zarete Europa mailan. Zertan asmatu du Gureak-ek?

Gureak-ek estrategian asmatu duela esango nuke. Horrez gain, Europa mailan, bi arlotan gara erreferente: alde batetik, modelo ekonomikoa azpimarratuko nuke, eta, bestetik, pertsonen zainketa.

"BERGARAKO PLANTA BERRIA ERAIKITZEKO, 6 MILIOI EUROKO INBERTSIOA EGIN BEHAR IZAN DA"

Bergarako historian gehiago sakontzeko hitzaldi sorta

Herriko historiaz gehiago jakiteko eta ikasteko, hitzaldi sorta antolatu dute azaroa eta urtarrila bitartean

M.R BERGARA

750. urteurrenaren baitan, hainbat ekitaldi egin dituzte, eta, azaroa eta urtarrila bitartean, Bergararen historia alderdi askotatik erakusteko, hitzaldi sorta bat antolatu dute. Hitzaldi horietan, herri barruko arkitektura, gizarte, euskara eta emakumea aztertuko dituzte, besteak beste.

Azaroko hitzorduak

Azaroaren 6an da lehen hitzordua –Seminarixoa, 11:00etan–, eta Pascual Romanek *Espionaje*

y azar en el aislamiento del wolframio izango du berbagai. Azaroaren 14an, berriz, Irizar jauregian eta 19:00etan hasita, Jerardo Elortza *Euskararen presentzia Bergarako historian zehar* gaiak arituko da. Aste bat geroago, Irizar jauregian baita ere, eta 19:00etan, Juantxo Madariaga *Bergara gizarte industrializazio aurretik* gaiak mintzatuko da. Azaroaren 24an, osoko bilkuran izango da hitzaldia, 12:00etan. Horretan, Patxi Larrañagak *Apellidos, linajes y casas solariegas de Bergara* gaia

hartuko du berbagai. Azaroko azken hitzordua 28an izango da, Irizar jauregian, 19:00etan. *El patrimonio arquitectónico en Bergara durante la Edad Moderna* izango da Jesus Angel Gilek jorratuko duen gaia.

Abendua eta urtarrila

Abenduko eta urtarrileko hitzorduak Irizar jauregian izango dira, eta 19:00etan hasiko dira. Abenduaren 13an, Alberto Santanak *Historia de los labradores y caseríos de Bergara*-z hitz egingo du. Abenduaren 19an, berriz, Miguel Lazpiuri *Bergarako balioak* gaiak mintzatuko da. Azkenik, urtarrilerako, hitzaldi bat antolatu dute, eta hilaren 9an izango da. Idoia Arrieta izango da hizlaria eta *Emakumearen papera historian* gaiak hitz egingo du.

Bisita gidatu antzeztua, gaurko Gaba Beltzari hasiera emateko

Legenardun batek Gaba Beltza eta Bergarako alde zahararen inguruan dauden kontakizunak azalduko ditu

M.R BERGARA

Beste urte betez, Bergarako kartzela zaharrean ospatuko dute, gaur, Gaba Beltza. 20:00etan, *Bautista leprosoa* bisita gidatu antzeztua egingo dute, euskaraz. Gaztelaniazko bertsioari 22:00etan emango diote hasiera eta bi hitzorduetarako epaitegi aurrean elkartzeko dira. Antolakuntzak hau adierazi du: "Legenardun (leproso) gisa Bergaran Erdi Aroan bizi zen pertsonaia bat hartu dugu; legenarra harrapatu, eta hil egin zen. Pertsonaia hau mamu moduan agertuko da

eta Bergarako alde zaharreko kontakizunak kontatuko dizkigu".

Bisita gidatu antzeztua amaitu ostean, "beldurrezko eta fantasiako film labur saio golfoari" emango diote hasiera. Horren ostean, eta Gaba Beltzari jarraipena emateko asmoz, moztorra festa hasiko da. DJ Wolf-Framiok eta beste munstro batzuek alaituko dute kartzela zaharra; beraz, musikariek ez da faltako. Herritarrak moztortuta joatea nahi dute antolatzaileek, eta baita arima txarrak uxatu eta ondo pasatzea ere.



Herriko hainbat komertziotako ordezkariak Herriko Plazan talde argazkia ateratzeko prest. IKER AIZKORBE

Herriko merkatariek lehen hitza, euskaraz

Pixkanaka zabalduz doa Euskaraldiarekiko kontzientzia zioa herrian. Antzuolako hainbat talde eta eragilek atxikimendua adierazteko argazkia ere atera dute. Izena emateko aukera eguen iluntzero erdigunean jartzen duten postuan dute herritarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herriko merkatariek garbi dute azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean antzuolar guztiak inplikatu gura dituztela Euskaraldiarekin. Hala, herritarrak motibatze asmoz, lehen hitza euskaraz egingo dutela azpimarratu dute. "Maiz, aurreiritziekin jokatzeko dugu eta gaztelerara errazegi jotzen dugu. Ondoren

etortzen zaizkigu sorpresak. Izan ere, askok dakite euskaraz, eta guk lehen hitza euskaraz eginda ohitura horiek aldatu egin behar ditugu", dio Xinkonako Alaitz Jauregik; merkatariek ez ezik, Debagoieneko enpresa ugariak langileak kontzientziatu gura dituzte Euskaraldiarekin: "Belarri eta aho formako 11.000 kilo pasatxo gozoki eskatu dizkidate,

lantokietan banatzeko eta gaiaz langileekin jarduteko". Klikatu dendako Amaia Madariaga, berriz, mintzalaguna da. Euskaraldiaz harago, euskararekiko konpromisoa egunero bermatu gura du: "Urte osoan saiatzen naiz lehen hitza euskaraz egiten. Dendarekin lotutako hitz asko teknikoak eta arrotzak dira; baina bezeroek ikasi eta erabili egiten dute".

Gurasoak ere, Euskaraldiarekin bat

Pausoka Guraso Elkartek urteko batzar orokorra egin zuen urriaren 24an. Bertan, Euskaraldia aurkeztu zuten eta Euskaraldiarekin bat egiten dutela adierazteko talde argazkia atera zuten batzordea osatzen duten kideek eta bertaratutako gurasoek.

Izena emateko orria eta informazioa guraso guztiei banatuko dizkie Herri Eskolak.



Pausoka Guraso Elkarteko kideak. PAUSOKA



BEGOÑA LETE

Aitortza herriko odol-emaleei

Debagoieneko odol-emaleen urteko festan, Antzuolako hamaika odol-emaleri aitortza egin diete. Hiruk oroigarria jaso dute, 100 bider eman dutelako odola: Juan Miguel Lizarralde, Jesus Igarzak eta Joxe Anjel Arbuluk. Beste zazpi antzuolarri ere egin diete aitortza, 75, 50, 40 eta 25 bider odola eman izanagatik.

Beñardo Kortabarria izango da EH Bilduren alkategaia

2019ko udal hauteskundeetarako Antzuolako EH Bilduk badu alkategaia: egungo alkate Beñardo Kortabarria. "Antzuolako EH Bilduk antolatutako prozesu parte hartzailean izena emateko epea agortu da. Aurkeztutako hautagai bakarrak, baina, Herriko Hauteskunde Batzordearen aho bateko babesia izan du", argitu du koalizioak.

Gazte txokoak atek irekiko ditu berriro asteburuan

Ikasturte berria abian da eta Antzuolako gazte txokoak kurtsoa abiatuko du asteburuan. Hala, azaroaren 3an, zapatuan, 17:00etatik 21:00etara bitartean zabalik egongo da gazte txokoa. Domekan, berriz, 17:00etatik 20:00etara. DBHko 1. eta 3. maia arteko herriko neskatila-mutikoendako makina bat jarduera izango da aurten ere.

GORA ETA BEHERA



ZURRATEGIKO GURASOAK

Baranda, oso arriskutsu



Zurrategiko baranda txarto dagoela salatu dute zenbait gurasok. Edonork min hartzeko arriskua dagoela diote. Udalak jakinarazi du konpontzeko ahalegina egingo duela.

Arima herratu ugari egunotan herrian zehar

Seigarren mailako neska-mutikoei dei egin dute 19:30ean hilerriko eskaileretan elkartzeko, gaur. Gau Beltza da, eta hildakoen mundutik etorritako pertsonaia ugari erakutsiko dituzte. Sun magoaren zapatuko ikuskizunak ere emango du zer esana

Larraitz Zeberio ELGETA

Iluna eta luzea izan ohi da Arimen Gaua, eta hemen da berriz. Azken urteetan moduan, seigarren mailako neska-mutikoei arima herratu ugari protagonista dituen istorioa eskainiko dute. Berrikuntzak iragarri dituzte; batez ere, amaieran. "19:30ean abiatuko gara hilerriko eskaileretatik eta beste hiru geldialdi egingo ditugu herrian: Maialde hotelean, elizpean eta plazan", azaldu du aktore lanak egingo dituzten neska-mutikoei gidatzen diharduen Nerea Villak. Hamar neska-mutiko dira antzezlan ibiltarian parte hartuko dutenak, eta istorioa sinplifikatuta eta amaiera berriarekin datorrela aurreratu du Villak. Horrekin batera, ibilbideak geldialdi gutxiago izango dituela esan du. "Amaieran, petardo-traka izango da plazan, eta, urtero moduan, gozokiak banatuko ditugu". Gomendioa da etxetik linterna hartuta bertaratzeko.



lazko Arimen Gauean, sorginak zabaldu zuen atea, Maialde hotelean. L.Z.

KONTAKIZUN SINPLIFIKATUAGOA ETA AMAIERA BERRIA GAUR, GABEKO ARIMEN GAUEAN

Kalabaza gutxi aurten

Atzo egin zuten Herri Eskolako ganbaran kalabazak husteko tailerra. Gaur erabiliko dira kalabaza horiek kale bazter ilunak argitzeko. Zaila izan omen da aurten kalabazak aurkitzea.

"Sorpresa, harridura eta tentsioa eragingo ditut zapatuko saioan"

IÑAKI RUIZ DE GALARRETA SUN MAGOA

Ahalmen ulergaitzak dituzte magoek, eta Sun magoak zur eta lur utziko ditu ikusleak zapatuan Espaloian egitekoa duen ikuskizunean. Sarrerak salgai daude *Elgeta.eus* atarian eta El Rincon de Lola tabernan. **Adin guztiendako ikuskizuna ekarriko duzu Elgetara?** Bai, familia osoarendako da. Ilusio handiak egingo ditut, eta saioan elkartuko ditut bertan azken hamarkadan sortzen joan naizen trikimailu ikusgarrienak. Amaieran, 500 litro ur dituen edukiontzi batean sartuko naiz lotuta eta kateatuta, eta ihes



SUN MAGOA

egiten saiatuko naiz. Nik bakarrik egiten dut trikimailu hori Espainia mailan. **Mago ezaguna zara: Harri Houdini antzezten duzu Club Houdini telesailean, eta**

estatu mailako sari bat ere jaso duzu.

Bai. Beste trikimailu batengatik eman zidaten saria, eta hori ere ikuskizunean dago. Umoreak eta gertuko magiak ere izango dute tarte Espaloiko saioan.

Publikoak parte hartzeko aukera izango du?

Behin baino gehiagotan! Gustatzen zait emozioekin jolas egitea. Sorpresa, harridura, tentsioa eta beldurra eragiten ditut saioan. Neurrian, noski!

Aste bukaera berezia da hau arima herratuendako.

Haiekin ere egiten duzu jolasean?

Saiatzen naiz. Gauzak ondo bidean, arima herratu horietako bat gure artean izango da ikuskizunean. Ea egoera kontrolpean mantentzen dugun.

"Leku askotan ditugu erleak: Elgetan, Nafarroan eta Errioxan"

LUIS MARI ARANTZETA ERLEZAINA

Elgetako produktuak ere izan ziren Erle Eguneako azokan

Amaia Txintxurreta / L.Z. ELGETA

Larrabiltxo baserrian erlezainak dira, eta postua izan zuen Luis Mari Arantzetak azokan.

Zein produktu eskaini dituzue?

Eztia da gehien saltzen dena, baina propolia eta *unturia* —pomada— ere salgai izan genituen. Argizaria, erakusteko eraman genuen.

Jendeak ezagutzen ditu produktuok?

Eztia bai. Galdera gehienak propoliari eta *unturia*-ri buruz izaten dira.

Non dituzue erleak?

Leku askotan ditugu, batzuk Elgetan eta beste batzuk Nafarroan eta Errioxan. Ezti oso ezberdinak ematen dituzte. Elgetakoa hemengo loreekin egindakoa da, eta gainerakoa erromerotik, ezkaitik edo artetik dator. Nahastu egiten ditugu guztiak; izan ere, udaberrian erromeroaren ezti zuri-zuria



Luis Mari Arantzeta. AMAIA TXINTXURRETA

aterako genuke eta udazkenean eta neguan, artearen ezti iluniluna. Ez dira ez hobeak ez txarragoak, baina bai oso ezberdinak. Jendea harritu egingo litzateke ikusita leku berean eta erle berdinek zelako ezti ezberdinak egiten dituzten.

Izen-emateak behar dira autodefentsa feminista tailerrera

Bideberri mankomunitateak autodefentsa feminista tailerra iragarri du azaroaren 10erako eta 11rako, Elgetan. Tailerra aurrera ateratzeko hamar parte hartzaile behar dira, gutxienez, eta, oraingoz, lau dira izena eman duten emakumeak.

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren bueltan antolatutako tailerra da, eta doan da.

Bi saio izango dira eta ludotekan egingo dituzte, 09:30etik 11:00etara. Emagin taldeko Rebeka Maestrok gidatuko du tailerra. "Egunerokotasunean emakumeok eraso eta diskriminazio egoera ezberdinak jasaten ditugu, eta horien aurrean indartu eta txiki egin ez gaitezen tresnak landuko ditugu", azaldu du. Hala, emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako saioak izango dira. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena lehenbailehen.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

Ruben Sanchez - Mikel Arkarazo / Haritz Gallastegi - Oskar Askasibar **5-18**

Iban Retolaza - Jose Mari Zubiaurre /

Gorka Bolinaga - Sergio Bouzas **18-11**

Diego Cantabrana - Txomin de Vega /

Alain Valle - Eneko Ormaetxea **12-18**

Oharra: Azaroko lehenengo aste bukaeran ez da partidarik jokatuko. Hurrengo jardunaldia azaroaren 9an izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

OHARRAK

Gaztaina-erre jana

Erretiratuek azaroaren 6an egingo dute urteroko gaztaina-erre jana, 18:00etan, Ozkarbin.

Memoria tailerra

Eguaztenean, hilak 7, hasiko dira memoria tailerrak, 09:30ean, kultura etxean.

Euskaraldia

Batzarra izango da azaroaren 6an, 20:00etan, Ozkarbin.



Mikel Biain alkatea eta Irati Etxeberria zinegotzia, kale garbiketaren langileekin. I.A.

"Eraginkorragoa" da kale garbiketa orain

Bi urte dira Oñatiko Udalak kale garbiketa zerbitzua publikatu zuela, eta erabaki hura zuzena izan zela adierazi du Udal Gobernuak gaiaren gainean egindako balorazioan. Dio ekonomikoagoa eta eraginkorragoa dela orain zerbitzua

Oihana Elortza OÑATI

Kale garbiketaren zerbitzua kudeaketa zuzenera pasatzea "erabaki ona" izan zela adierazteko arrazoiak eman ditu Udal Gobernuak zerbitzua publikatu eta bi urtetara. Datuak eman ditu egungo zerbitzua ekonomikoagoa dela arrazoitzeke. Kalitate hobea dela ere aipatu du.

Baliabide gehiago ditu

Balorazio ekonomikoari dago-kionean, aurtengo maiatzean udal kontu-hartzaileak egindako txostenean jasotakoak aipatu ditu. Lehen FCC enpresak zerbitzurako erabiltzen zituen makina eta pertsona kopuru bera –zortzi langile eta garbitzaile bat– egungo eredura ekarrita, 402.627,85 euro litzateke Udalaren kostua, lehen baino %29 merkeago –FCCrena 567.311,67 eurokoa zen–.

Udal Gobernuak emandako datuen arabera, egungo zerbitzuak, modu iraunkorrean, hamaika langile, bi garbitzaile,

kamioi bat eta presiozko garbiketeta tresneria berria ditu. "Langile eta makineria gehiago jarrita, oraindik ere FCCren kostua baino baxuagoa da kudeaketa zuzenarena: 561.682,63 euro".

Baliabide gehiago jartzeaz gain, prozedura berriak ere ezarri direla dio Udal Gobernuak. Eta gaineratu: "Honek ekarri du zerbitzuaren kalitatea nabarmen hobetzea. Sortu den lantaldeko pertsonak eta antolakuntza berria dira hobekuntzaren gako nagusiak". Horri lotuta dio erabakia ez zela irizpide ekonomikoetan oinarrituta bakarrik hartu, "zerbitzuaren kalitatea eta kontrola hobetzeko asmoz baizik".

**ZERBITZU PUBLIKOA
INDARTZEAREN ETA
KUDEAKETA
ZUZENAREN ALDE
DAGO UDAL GOBERNUA**

Langileen kalte-ordaina

Pribatua zen zerbitzua publiko bihurtzeko prozesuan, FCCko langile batzuk kanpoan gelditu ziren, lan eskaintza publikoaren lehiaketa ez zutelako gaintitu. "224.599 euro ordaindu zituen Udalak. FCCren baliabide berekin jarraitzea erabaki izan balu Udalak, 164.683 euro aurreztuko zituen eta urte eta lau hilabetetan kalte-ordaina amortizatua geratuko zen".

Udal Gobernuak "argi" ikusten du oinarritzeko diren zerbitzu publikoak "modu zuzenean eta publikoan eskaintzako ahalegin berezia" egin beharko litzatekeela. Eta gaineratu du: "Arduradun publikoak garen heinean, gure ardura da herri baliabideak ahalik eta modu zuzenean kudeatuz zerbitzu publikorik egokiena eskaintzea".

Zerbitzu publikoa indartzea eta kudeaketa zuzenaren alde egitea agintaldiaren ezaugarrietako bat izan dela adierazi zuen, duela astebeite, Udal Gobernuak.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

Plastikozko itsasoa

Aurreko igande gauean sare sozialen bidez, nola ez, iritsi zitzaidan hurrengo egunean biral bihurtuko zen bideoa. Bai, albistegi guztietan azaldu den Zumaia eta Deba arteko itsaso bazterreko plastiko pilaketa erakusten duena.

Irudi horiek zer pentsa eman zidaten: non dago horren guztiaren jatorria? Nor da erruduna?

Seguruenez, ez da jatorri ez errudun bakarra izango. Zati batean, plastiko horiek sortu eta edozein eratako ontzi edo bilgarrietarako erabiltzen dituztenak izango dira. Beste zati batean, bilgarri horiek erabili eta gu guztion esku jarriko dituzten bitartekariak izango dira, tartean dendak eta supermerkatuak. Eta beste zati handi bat gu geu gara. Gu geu gara, ontzi eta bilgarri horiek dituzten produktuak aukeratzen ditugulako, seguruenez erosotasunaren edo higienezaren izenean. Gu geu gara, inolako ardurarik gabe edozein tokitan botatzen ditugulako.

Izan gaitezen "denok" arduratsu.

Aurrekontuetarako proposamenak jaso gura ditu EAJK

Azaroaren 15era arte, batzokiko postontzia, helbide elektronikoa, udal taldearen sare sozialak erabilia edo aurrez aurre esanda egin diezazkioke ekarpenak herritarrek EAJri. "Oñatiarren momentuko behar zein eskaerei erantzuteko", aurrekontuetarako herritarren proposamenak ezagutu eta jasotzea da jeltzaleen helburua.

Oñatiko jauntxoek lurperatzeak ikusteko bisita bihar

Bihartik, eguena, domekara bitartean, bisita gidatu bereziak egingo ditu Turismo Bulegoak. Azaroaren 1ean, esaterako, Oñatiko jauntxoak non dauden lurperatuta erakutsiko dute, 13:00etan. Hurrengo egunetan, unibertsitatea eta parrokia erakutsiko dituzte. Baterako zein besterako, erreserba aurrez egitea komeni da.

Tabernetako ordenantza behin betiko onartu du udalbatzak

Presoen aferaren inguruan Estrasburgotik etorritako albisteak ez dute begi onez ikusi ez EH Bilduk ezta EAJK ere

O.E. OÑATI

Urriko osoko bilkuran onartu du udalbatzak ostalaritzan ari-tuko diren establezimenduen-dako arautegia. EAJ alderdiak kontrako botoa eman zuen, gaiaz eztabaidatu dutenetan eman dituen zergati berak arrazoituz. Udal Gobernuak kideek, EH Bildukoek, ez zuten erantzunik eman eta euren aldeko botoekin onartu zen ordenantza.

Euskaraldiarekin bat

San Martin egoitza eta eguneko zentroaren kudeaketa Foru Al-

dundiaren esku uzteko hitzarmena aho batez onartu zuten; urtariletik aurrera, Aldundiak kudeatuko ditu zerbitzu bi horiek.

Gai zerrendatik kanpo, presoen aferari begira Estrasburgok as-tean hartutako erabakia ez dutela ondo ikusten adierazi zuten bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJK, "berri txarra" izan dela gehituta. Elkartasuna adierazi zieten presoei eta euren senideei.

Osoko bilkura hasi aurretik, Euskaraldiarekin bat egiten dutela adierazteko talde argazkia atera zuten zinegotziak.

Elkartasun katiluak ekarri ditu Hotz Oñatik

Greziako haur errefuxiatuek margotutako zeramikazko ontziak hamar eurotan salduko ditu Hotz Oñatik, urtarrilera bitartean, eta jasotako dirua Atenasen lanean diharduen elkarte batendako eta itsas salbamenduetan ari den beste batendako izango da

Oihana Elortza OÑATI

Greziar dauden haur errefuxiatuek egindako marrazkiak dituzten katiluak salduko ditu Hotz Oñatik, eta diru hori bi proiektu hauetara bideratuko du: Salvamento Maritimo Humanitario-ren *Maydayterraneo* proiekturako eta SOS Refugiados elkarteak Atenasko Victoria Social Center-en egiten duen lanerako.

Ipuinen marrazkiak dira

Duela hilabete batzuk Arriondasen (Asturias) jarritako egitasmo baten jarraipena da. Zeramika lantzen zuen artisau batek hango institutuko irakas-



Eskuz margotutako elkartasun katiluetako bi. O.E.

le batekin martxan jarri zuen proiektua. Ikasleek ipuinak idatzi eta ingelesera itzuli ostean, audio bidez Atenasen (Grezia), Squad City Plazan eta Victoria Social Center-en zeuden haur errefuxiatuei bidali zizkieten, eta haur haiek ipuinei buruzko marrazkiak egin zituzten. Greziako umeek egindako marrazkiekin katiluak egiten hasi ziren, eta horien salmentarekin ateratako dirua egitasmo solidario batera bideratzen.

Azokako postuan

Egun, Asturiasen ez ezik, Tolodon eta Aragoi ere egiten dituzte horrelako elkartasun katiluak, eta horietan ekarriko ditu Hotz Oñatik herrira. Elkarrekin azokan izaten duen postuan eta Gabonetako azokan egongo dira salgai, hamar eurotan. Herriko lantegi, eskola eta zerbitzu ezberdinetan informazio kartelak eta eskaera orriak jarriko dituzte eta zerrendak bete ahal banaketa egingo dute.

Azaroan hasiko dira eskaerak jasotzen eta urtarrilera bitartean gauzatuko da elkartasunezko katiluen egitasmoa.

Musika eta zinemako irudiak domekan, Musikegunak hasteko

Azaroko lehen hiru aste bukaturretan izango dira aurten Musikegunak zikloko kontzertuak; izan ere, azkenekoan, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenako ospakizun nagusiak egingo dira Oñatin eta agenda beteta egongo da. Lehen emanaldia domekan izango da, azaroaren 4an. Harpa eta oboea jotzen dituen bikote batek emango du lehen kontzertua. Italiako zinema klasikoari omenaldia egingo diote, musika eta zinemako irudiak erabilita. "Santa Anan oraindik martxan dago irudiak proiektatu ahal izateko sistema, eta hori aprobetxatuko dugu", adierazi du Nerea Zubiak.

Musikegunak musika zikloak 40 urte betetzen ditu aurten, eta musika garaikidea ere egongo da entzungai. Bigarren emanaldia Oñatiko Ganbara abesbatzak egingo du eta hirugarrena, Eñaut Elorrietak, hari boskote bat ondoan duela. Kontzertu guztiak Santa Anan izango dira, domeketan, 19:00etan.



MOYUA

HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA



- Kliniketara joaten gara (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- Leku aldatzeak
- Dokumentazioa
- Koroak
- Eskelak (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47

943 78 06 71

Sakelakoa: 617 44 24 66

mmoyua@telefonica.net

Obispo Otadui 27 (Bolibar auzoan)

20560 OÑATI

"40 minututik jaistea gustatuko litzaidake"

MAIDER URIBE KORRIKALARIA

laz Antxintxika krosetan irabazle, bergararrak, aurten, marka hobetzea du helburu. Bergarako kaleetan jendeak ematen duen bultzada sekulako hauspoa dela uste du

Jokin Etxebarria BERGARA

Zaletasunagatik egiten du korrika Mainer Uribe bergarar gazteak. Iaz, bere herriko plazako helmugan besoak altza zituen, Antxintxika krosetan; aurten ez du proba espresuki preparatu, baina aurreko postuetan egotea du helburu.

laz irabazle irten zinen; aurten zein da zure helburua lasterketari begira?

Helburu moduan aurreko urteko marka, ahal izanez gero, behintzat, hobetzea daukat. Badakit ez dela erraza izango, iaz oso ondo ibili nintzelako, baina 40 minututik jaistea gustatuko litzaidake.

Eta helburu hori lortzeko prestaketa bereziren bat egin duzu?

Korrika zaletasunagatik egiten dut, ez dut entrenamendu zehatzik egiten. Nire denbora librean korrika egitera irteten naiz eta 10-14 kilometro egiten ditut, normalean, gustura gelditu arte. Egia da, herriko lasterketa izanda, beti dela gustuko bertan ondo ibiltzea eta nolabait ere horri begira egotea, baina ikasketetako praktikak egiten nabil orain eta ez dut denbora soberan eduki lasterketa honi begira prestaketa zehatza egiteko.

ibilibidea ez da aldatu. 10 kilometro lauk dira. Zein da gakoa Soralu-



Mainer Uribe helmugara iristen. ARTXIBOA

zetik Bergararako ibilbide horretan aurreko postuetan ibiltzeko?

Nik beti beste norbaitekin batera egin izan dut lasterketa. Normalean, mutil-lagunarekin. Bera izan da erritmoa markatu izan didana, erbi-lanak egin dizkidana, eta larri nabilela ikusi izan dudenean erritmoa jaitsi duena. Aurten, bakarrak egingo dut korrika eta ez dakit nola moldatuko naizen. Hala ere, betiko antzera, azkar irteten saiatuko naiz. Azkar bai, baina kontrol baten barruan beti, itozteko arriskurik hartu gabe.

Beraz, estrategia moduan, azkar irten eta ahalik eta azkarren alde zabaltzea erabiltzen duzu.

Gustuko dut hori egitea, jendea aurreratzen ibili beharrenden presiorik ez edukitzeko. Egia da, batzuetan, bete-puntu bat izateko arriskua badagoela, baina, orduan, erritmoa jaitsi eta kito. Nahiago dut hori, atzetik aurrera ibili baino. Lasai irteten zarenean ere, ez dago ziurtatuta helmugara ondo iritsiko zarenik. Azkenean, gainera, nolabaiteko presio bat jartzen diozu zeure buruari ere, aurreko pos-

tuetan ibili ahal izateko jendea aurreratzen ibili beharra daukazu eta lasai irtenda ere gero erritmoa bizkortu beharra daukazu. Nik estrategia hori erabiltzen dut eta, oraingoz, ondo joan zait: aurrekoetakoa irteten saiatu eta kontrol baten barruan erritmoa bizia ezarri hasieratik.

Ibilbidean zehar hainbat puntu berezi egoten dira. Zein da barruak gehien betetzen dituen?

Osintxu erditik egiten den pasaldia asko gustatzen zait; amama bertakoa da eta bertan bizi da. Aita ere han egoten da balaitik animoak ematen, eta berezia izaten da. Baina egia da, baita ere, Bergarara iritsita, Ariznoako zuzengunea jendez beteta egoten dela, lagunak, familiarreko kide batzuk, ezagunak... ere bertan izaten direla, eta jasotzen dituzun animoak azken metroak egiteko sekulako hauspoa ematen dutela.

Emakumeen parte-hartzea gora doa. Aurten, %30 izango da, gutxi gorabehera. Baina nola egin daiteke gehiago anima daitezen?

Ni beti egoten naiz lagun eta ingurukoei animatzeko eskatzen, eta erantzuna beti izaten da: "Nik poliki egingo dut" edo "nik amaitu orduko...". Bakoitzak bere erritmoan egin beharra dauka, poliki izan edo azkar izan. Kirola eginez gozatzea da kontua, eta, lehiatzen joan gabe ere, parte hartzea bera izaten da polita. Gero, etorriko dira, etorri behar badira, bakoitzaren marka hobetzeak edo bakoitzak bere buruarekin izan ditzakeen pike txikiak. Baina egia da kosta egiten dela neskak animatzea.

laz, bailarako podiuma egon zen nesketan. Aurtengo, kinielarik?

Uf. Oso zaila da horri erantzutea. Ez dakit ezta zeintzuek hartuko

duten parte ere, eta horrela kinielarik bat egitea ez da erraza izaten.

Euri artean ibili eta gero entrenatzen, larunbaterako eguraldi hobexegoa espero da. Zer-nolako eragina izan dezake horrek korrikalarion gorputzetan?

Aldaketa hori beti da hoberako. Azken finean, egoera txar batean aritzetik egoera hobe batean parte hartzea pasatzen zara eta horrek psikologikoko lagundu egiten du. Motibatu egiten zaitu, normalean.

Berriz ere Mikel Crespo Memoriala

Beste behin ere, lasterketari Mikel Crespo Memoriala deitzea erabaki dute aurten ere Antxintxika elkarteak, eta iaz sortu zituzten Mikel Crespo sariak ematen jarraituko dute, Debagoieneko lehen sailkatuari, bai nesketan eta baita mutiletan ere.

Gainera, aipatzekoa da izen emate bakoitzeko euro bat Aspaceri banatuko zaiola, burmuineko paralisia dutenen alde, eta, azken hiru urteetan bezala, Aspaceko hiru gazte antolakuntzan laguntzen ibiliko direla.

Antxintxikak lasterketa integratzailea izatea nahi du, eta, 14. edizio honetan ere Hand Bikeko parte hartzaileak, patinatzaileak eta korrikalariak egongo dira ibilbidean.

Taula erditik gora ibiltzeko moduko hautagaiak

Gol gehien sartu duen taldea hartuko du Mondratek; Eskoriatzak eta Aretxabaletak kanpoan jokatuko dute

J.E DEBAGOIENA

Areto futboleko Euskal Ligako lau jardunaldi besterik ez da jokatu, baina dagoeneko ikusi da Debagoieneko hiru taldeak taula erditik gora ibiltzeko moduko hautagaiak izan daitezke-

la. Aretxabaletak liderraren aurka kolpe latza jaso bazuen ere, laugarren postuan sailkatuta dago, lehenak beste puntuarekin, eta, asteburuan, garaipenik lortu ez duen Soloarteren aurka jokatuko du. Aurreko

postuetan jarraitzeko beste aukera bat izango du, beraz.

Mondratek 6-0 irabazi zuen azken partidua eta salto ederra eman du sailkapenean. Asteburuan, etxean jokatuko du, baina aurkari zaila edukiko du, ligan gol gehien sartu dituen taldea hartuko baitu: Hegalariak.

Eskoriatza, berriz, kanpoan arituko da: Gernikan. Kantxa eta aurkari zailak, baina partidu parekatua izango da, bi taldeek golak sartzeko antzeko gaitasuna erakutsi baitute orain arte.



Mondratek bakarrak jokatuko du etxean asteburu honetan. ARTXIBOA



Leintz Arizmendiko senior, kadete, infantil eta eskola mailetakok, domekan. IMANOL SORIANO

Leintz Arizmendi, baloi gosea asetzeko iturri

FUTBOLA Domekan aurkeztu zituzten Leintz Arizmendiko lau taldeak Ibarra; bailarako edozein neskari futboleant jarduteko aukera ematea dute helburu, futbolaren bitartez ondo pasatzeko asmoarekin, baina lehiakor izateko asmoz

Xabier Urzelai ARETXABALETA Arizmendiko eskola kiroleko taldeak domekan jokatu zuen, Bergararen kontra, ikasturteko lehen partidua Ibarra, eta hitzordu hori baliatu zuten talde guztien aurkezpen ekitaldia egiteko. Horretarako, partidu ofizialarekin batera, hainbat lagunarteko ere antolatu zituzten, Leintz Arizmendik aurten

berdegunean izango dituen jokalariek guztiak erakusteko: "Garrantzia eman gura diogu nesken kirolari eta lehen partidu eguna aprobetxatu dugu jai txiki hau antolatzeke", adierazi zuen Urzti Amiano koordinatzaileak.

Elkarlanean jarraitzen dute "Mondraren, UDaren eta Arizmendiren lan loturak ekarritako

ko neska futbolarien mugimendua da harrobi hau eta helburua da bailarako edozein neskari futboleant jarduteko aukera ematea. Eta ondo pasatzea, bai lehenengo mailan zein azkenean egon. Egia da lehia hor dagoela eta jokalariek partidua irabaztera irten behar dutela futbol zelaira, baina ondo pasatzeko helburuarekin beti".

Gipuzkoako Txapelketara buelta

Leintz Arizmendik gozatu ederra hartu zuen iaz, talde sortu berria izanda Euskal Ligan talde lehiakorra izan eta kategoriari eustea lortu zuelako.

Aurten, baina, egoera bestelakoa dela ikusita –beterano batzuen hutsunea, gazteen etorrera...–, Gipuzkoako Txapelketan lehiatzea erabaki dute, futbolarekin gozatzeko jarraitzea dute-eta helburu.



Leintz Arizmendiko talde nagusia Gipuzkoako txapelketan dabil. I.S

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Deusto D.

Domeka. 16:30. Ibarra.

Elgoibar-Mondra

Eguena. 16:30. Mintxeta.

Eibar-Bergara

Zapatua. 16:00. Unbe.

ERREGIONAL PREFERE.

Soraluze-Aretxabaleta

Eguena. 16:30. Ezozia.

Mondra-Lagun Onak

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Aloña Mendi-Zumaiak

Domeka. 16:30. Azkoag.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

Bergara-Ostadar

Zapatua. 16:30. Ipintza.

Añorga-Leintz Arizmen.

Eguena. 10:45. Rezola.

LEHEN ERREGIONALA

Ordizia-Aloña Mendi

Eguena. 11:30. Altamira.

Arizmendi-Urki

Eguena. 15:30. Ibarra.

Zarautz-Bergara

Zapatua. 15:30. Asti Txiki.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrate-Hegalariak

Domeka. 17:30. Musako.

Gernika-Eskoriatza

Zapatua. 16:45. Gernika

Soloarte-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Basauri.

OHOREZKO GAZTEAK

Eskoriatza-San Juan

Zapatua. 13:15. M. Muñ.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Gure Au.-Fagor Indust.

Domeka. 12:00. Gasteiz.

SASKIBALOIA

EBA

Ordizia-MU

Zapatua. 18:00. Majori.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Mekalki Aloña-Cafes A.

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

Internaci.-Bergara So.

Zapatua. 18:00. Donostia.

GIP. HIRUG. MAILA

Mekalki Aloña-Larrame.

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Zurrut-MU C

Zapatua. 19:15. Andoain

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Antigua

Egubakoitza. 20:15. M.Mu.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Kanpanzar ART

(Atsedena)

ATLETISMOA

ANTXINTXIKIA KROSA

Zapatua. 16:30. Soraluzen.

Gurpildun aulkikoak 16:30ean irtengo dira, 16:45ean handbikekoak eta 17:00etan korrikalariak.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKET

Aretxabaletan:

Eguaztena, 18:00etan hasita zortzi partidu.

Bergaran:

Eguaztena, 19:30ean hasita partidu bat Gipuzkoako txapelketakoa, eta beste partidu bat herri mailako seniorrena.

Eskoriatza:

Egubakoitza, 19:30ean hasita partidu bat.

FUTBOLA Aretxabaletak Deusto Donostia hartuko du domekan

Ohorezko Erregional mailan Aretxabaleta da etxean jokatu duen ordezkari bakarra, eta atzealdeko postuetatik irteteko ahaleginean dabilen beste talde bat izango du aurrean, Deusto Donostia (domeka, 16:30). Bihar, osteguna, Mondrak Elgoibarren zelaian jokatu du (16:30) eta Bergarak Eibarren jokatu du zapatuan (16:00).

ESKUBALOIA Atsedena Ford Mugarrirendako; Oñatikoak, Gasteizera

Oraingo asteburuan zubia denez, Ford Mugarri Arrasatek atsedena izango du. Ez, ordea, Fagor Industrial talde oñatiarrak, domekan jokatu du-eta Gure Auzuneraren kantxan (12:00, Gasteiz). Txantxikuak bigarren daude sailkapenean, eta Gasteizko taldea sailkapeneko erdialdeko postuetan murgilduta dago.

Mundukorako txartela eskuan

KENPOA Zapatuan egin zuten Gipuzkoako eta Euskadiko Kenpo Txapelketa, eta Atama taldekoek, kategoriatan, nabarmentzeko lana egin zuten. Bereziki, azpimarragarria da Mikel Belokiren eta Leire Ratoren lorpena: 2019ko Munduko Txapelketari begira, Espainiako selekzioarekin aurre-aukeraketa taldean sartu dituzte.



Augustin Zubikarai beka irabazi du Barberenak

Arrasatearrak aurkeztu duen 'Afrikaners' nobela-proiektua izan da sariketaren irabazlea; saria azaroaren 1ean emango diote, Ondarroan. Barberenak urtebeteko epea izango du proiektuan jaso duena eleberri bihurtzeko. "Erronka" dela dio

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Eneko Barberena arrasatearraren nobela-proiektu batek irabazi du Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Augustin Zubikarai saria. Hamasei lan aurkeztu dituzte, eta, horien artean, Barberenaren *Afrikaners* izeneko proposamena aukeratu dute. Leire Bilbaok, Xabier Mendigurenek eta Ana Urkizak osatu dute epaimahaia.

Barberenak azaldu du ez zuela espero beka irabaztea: "Uda honetan bi hilabete eman ditut hanka apurtuta; eleberri bat egiteko ideia buruan bueltaka nuenez, denbora izan dut horretara jartzeko". Saria lortzeak poztasuna eta, era berean, "izu puntua" ere eman diola gehitu du. "Orain, konpromisoa hartu dut urtebeteko lana egiteko eta buruko ideiak ordenatzeko".

'Afrikaners' lana

Nobela proiektuaren izena *Afrikaners* da, eta eleberriak ere izen bera izan dezake. "Nobela Arrasaten giroa egongo da, 10 bat urte barruko Arrasaten. Nik ditudan hipotesi batzuen arabera irudikatuko dut Arrasate: batetik, etorkinen gaia landuko dut. Europar Batasunak armak erabiliko ditu etorkinen jariora sikatzeko. Beste gai bat



Eneko Barberena, Arrasateko Otolora kalean. A.E.

izango da funtzionario batek izango duen konflikto pertsonala ustelkeriaren aurrean".

Hurrengo urtean zelako lana egin beharko duen galdetuta, Barberenak dio, lehenengo, irakurri egin beharko duela tesuingurua hobeto ezagutzeko; eta, ondoren, zirriborroak idazten hasi beharko duela: pertsonaiak eraiki, konfliktoak sortu...

Zer baloratu duten

Nobela proiektua aurkezterakoan, bi zati aurkeztu behar izan ditu Barberenak: 15 orritan, elebe-

rriaren zati bat idatzi behar izan du: "Horrek balio izan dio epaimahaiari nire idazkera ikusteko"; bestetik, bi orritan, ze asmo dituen azaldu behar izan du: pertsonaiak, arrazoiketa, trama...

Erronka izango da

Idazleak dio "erronka" izango dela eleberria idaztea; izan ere, orain arte argitaratutako lanak "xumeak" izan dira: 2002an, *Igo-gailuak*, *Dow Jones eta beste droga batzuk*; 2004an, *Lurrunak ez du oraindik kristalik estali*; eta 2011n, *Martin Larralde*.

Hamabosgarrena egiteko gogoz amaitu dute Txotxongilo Mostra

Gonbidapenik ez zuen eguraldiak baldintzatu du Mostra; hala ere, antolatzaileak "gustura" geratu dira

A.E. BERGARA

Hamalagarren urtez, Nazioarteko Txotxongilo Mostra izan da asteburuan Bergaran, eta, eguraldiak zenbait saio desitxuratu dituen arren, herritarrek gustura ikusi dituzte emanaldiak.

Antolatzaileak gustura gelditu dira Mostrak emandakoarekin: "Nik beti balorazio oso ona egin dut. Aurten, eguraldiak baldintzatu du; pena bakarra hori da", azaldu du Itsaso Azkarate antolatzaileak. Gaineratu du egon direla emanaldi batzuk "samurragoak ikusteko" eta beste batzuk "arrisku handiagokoak": "Zapatu gauekoa, adibidez, batzuek ez zuten ulertu... Nik diot ez dela dena ulertu behar, disfrutatu ere egin behar da".

Estreinaldia, gaztetxean

Egubakoitzean, gaztetxean, Behibis taldeak mundu mailako es-

treinaldia egin zuen: *Trabajos de interior*. "Helduendako egiten duten euren bigarren ikuskizuna izan da". Gainera, Azkaratek gehitu du hiru egun egin dituela Donostiako konpainiak gatzetxean bertan entseatzeko.

Nondik etorri diren konpainiak

Nazioarteko Mostra izanda, parte hartu duten konpainiak ere nazioartetik etorritakoak izan dira. Hain zuzen, Danimarkatik, Italiatik, Kataluniatik, Argentinatik, Murtziatik eta Londrestik etorritako taldeak izan dira aurten Bergaran.

Baina kanpokoei bakarrik ez, etxekoei ere egin die lekua Bergarako Mostrak. Zapatu eguerdian, Iñaki Mata antzularrak *Welcome* lana eskaini zuen erdiguneko kaleetan. Poesia bisuala oinarri duen lan ibiltaria eskaini zuen Matak.

Izaroren kontzerturako sarrerak, salgai

Mallabiko musikariak emanaldia eskainiko du azaroaren 9an, Bergarako Seminarixoan. Hala, sarrerak salgai jarri dituzte -8 euro-. Bi modu daude txartelak erosteko: batetik, *Ticket.kutxa-bank.es* atarian eskura daitezke; bestetik, Seminarixoko txarteldegian egongo da sarrerak erosteko aukera. Seminarixoko txarteldegia eguenero zabaltzen

dute, 18:00etatik 20:00etara. Emanaldia hurrengo barikuan izango da, 22:00etan -zutik entzuteko emanaldia izango da-.

Izaro *Eason* izeneko bigarren lan luzea aurkezten dabil han eta hemen. 2014an hasi zuen bere musika ibilbidea, ia ohar-kabea. Orditik hona, ez du etenik izan; laukote formatua hartu du taldeak, eta areto guztiak betetzen dituzte. Entzuleak Izaroren kantu eta hitzekin zeharo identifikatzen dira. Bihozetik sortutako piezak dira.

EUSKAL MITOLOGIA, GURE HISTORIA

GOIENA TELEBISTA

AZAROAREN 1EAN, EGUENA, 9:30EAN ETA 14:30EAN
GANBARA FAKTORIAREN IKUSKIZUNA

goiena
Zu hemen zaude.



Nazioarteko musikariak, azaroko eguenetan

Anari taldea; Old Seed, Kanadako bakarlarria; Poison Idea taldeko abeslari Jerry A. Gipuzkoako 25th Coming Fire taldearekin; Estricalla eta The Wooly Bushmens amerikarrak. Horiek guztiak, Arrasateko gaztetxean izango dira, eguenetan, 22:00etan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
"Kooltur Ostegunek jaieguetan ez dute eguen arruntetan beste-ko harrera onik izaten publikoaren aldetik", eta, esperientziatik ikasita, datorren astean abiatuko du Kooltur Ekintza taldeak hileko eskaintza.

Azaroaren 8an, Anari taldea
Orain dela hiru denboraldi egon zen Arrasateko gaztetxean azkeneko azkoitiarrak gidatutako taldea. "Harekin eta bere taldearekin gogoratu, eta berriz ere etortzeko gonbidapena egin genien, badakigu jendeak gustura hartzen dituztela. Talde formatuan etorriko dira, konexio berezia dute publikoarekin", azaldu du Kooltur Ekintza taldeko Iker Barandiaranek.

Kanadako, azaroaren 15ean
Hileko bigarren gonbidatua da Old Seed Kanadako bakarlarria. "Ez dugu zuzenean ikusteko aukerarik izan, baina oso kritika onak heldu zaizkigu. Emanaldi intimoagoa izango da".

